



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

BAT-BATEKO BERTSOLARITZA LEHEN HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Sagardia Berriotxo, Josu

ZUZENDARIA: Barandiaran Amarica, Asier

2020/2021

LABURPENA

Ondorengo lanean ahozko literaturaren adar baten inguruan hitz egingo da, bat-bateko bertsolaritzaren inguruan hain zuzen ere. Izan ere, ahozko literatura ez tradiziozkoen artean, bat-bateko bertsolaritza euskal munduan dugun ikur nagusienetakoa da, non haren konplexutasunak eta ezaugarriek gainontzeko ahozko literatura mota desberdinetatik ezberdintzen duten. Hori dela eta, bat-bateko bertsolaritzaren zenbait definizio ikusteaz gain, haren ezaugarri nagusiak adierazi eta azalduko dira lan honetan, besteak beste, doinua, errima, neurria, bertsolaritzaren zailtasuna, etab.

Horrez gain, gaur egun Euskal Herrian Lehen Hezkuntzan dagoen bertsolaritza proiektu nagusiaz hitz egingo da, "gu ere bertsotan" izenekoak. Alderdi honetan, proiektuaren egitasmo, funtzionamendu, helburu nagusiak... zeintzuk diren helaraziko dira, eta proiektu honek hezkuntzako arlo ezberdinetan (hizkuntzan, musikan, kulturen eta trebetasun sozial eta pertsonaletan) dakartzan ekarpen nagusiak adieraziko dira.

Alabaina, honakoa esaten den bezala egiten dela ziurtatzeko eta baietzatzeko, gaian adituak diren bi pertsonekin egin da elkarrizketa: Mikel Artola eta Aitor Mendiluzerekin. Era honetan, teorian esaten dena errealitatearekin kontrastatu aukera izan dut, horrela, zenbait ondorio ateraz. Ondorioez gain, etorkizunera begira hobetzeko edo jorratu nahi diren alderdiak ere zeintzuk diren jakiteko aukera izan dut.

Arrazoi hauek direla medio, bertatik abiatuta unitate didaktiko bat sortu dut, non honakoa bat-bateko bertsolaritzan oinarritzen den. Beraz, ezerezetik bat-batean bertsotan aritzeko aukera eskaini nahi izan dut honekin, errezenetik zailenera doazen jarduera batzuk burutuz.

RESUMEN

En el siguiente trabajo se hablará de una rama de la literatura oral, del bertsolarismo repentino o improvisado en concreto. De hecho, entre la literatura oral no tradicional, el bertsolarismo repentino o improvisado es uno de los mayores símbolos del País Vasco, donde su complejidad y características los diferencian del resto de las distintas literaturas orales. Es por eso que, aparte de ver ciertas definiciones, se expondrán las características principales del bertsolarismo (la melodía, la rima, la medida, la dificultad del verso, etc.).

Además de eso, se hablará sobre el proyecto más grande del bertsolarismo que hay actualmente en Educación Primaria en el País Vasco, el proyecto “gu ere bertsotan”. En este apartado, se expondrán el funcionamiento, los objetivos principales... del proyecto, y además, se mencionan las principales aportaciones que genera el proyecto en los distintos apartados o temas de la educación, como pueden llegar a ser en el idioma, en la música, en la cultura y en las habilidades sociales y personales.

Sin embargo, para confirmar y verificar que lo recién mencionado se cumple, se les ha entrevistado a dos expertos en el tema, a Mikel Artola y a Aitor Mendiluze. De esta manera, he tenido la oportunidad de contrastar lo que se dice en la teoría con la realidad, así pudiendo sacar algunas conclusiones. Además de esto, he tenido la oportunidad de saber cuáles son los aspectos que se quieren trabajar o mejorar en un futuro.

Partiendo desde este punto, he diseñado una unidad didáctica donde se basa en el bertsolarismo repentino o improvisado. Con esto, he querido ofrecer un material para poder saber hacer bertsos desde la nada, haciendo ejercicios desde lo simple a lo complejo.

AURKIBIDEA

• LABURPENA	1
• RESUMEN	2
• SARRERA	4
• JUSTIFIKAZIOA: PERTSONALA ETA AKADEMIKOA	5
• MARKO TEORIKOA	6
• ERREALITATEAREN KONTRASTEAK	17
• UNITATE DIDAKTIKOA	28
• MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	39
• BIBLIOGRAFIA	40
• ERANSKINAK	41

SARRERA

Bertsolari txapelketa nagusia, bertso saio edo jaialdiak, bertso eskolak... gezurra dirudi euskaldunon artean XVIII. mendean hasi zen fenomeno hura zer bihurtu den gaur egun. Izan ere, bat-bateko bertsolaritzak euskal kulturaren duen garrantzia izugarria da egun, non haren ezaugarriek eta konplexutasunak bakarrik egiten duen munduan.

Alabaina, nahiz eta gure artean hainbat hamarkadetan zehar egon den bat-bateko bertsolaritza, duela erlatiboki gutxi sartu izan da hezkuntzan, bada, nahiz eta bertso eskolak aspaldi sortu ziren, Lehen Hezkuntzako ikastetxe ezberdinetan ez da bat-bateko bertsolaritza jorrazteko aukerarik eman.

Aldiz, honakoa sinesgaitza suertatu liteke bat-bateko bertsolaritzak ikasleengan izan ditzakeen ekarpenak ikusiz, bada, haren ezaugarriek, ikasgeletan egunerokotasunean ematen diren hainbat alderdiren garapena sustatzen dute; hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun pertsonalak eta sozialak, batik bat.

Hala ere, bat-bateko bertsolaritzari oraindik bide luzea geratzen zaio hezkuntza munduan, bada, mundu honetan, hasi berri egin da bakarrik; eta nahiz eta jada arrakasta handia duen, hobekuntzarako tarte handia dago oraindik, non jarraian, besteak beste, horren inguruan jardungo dugun.

JUSTIFIKAZIOA: PERTSONALA ETA AKADEMIKOA

Egia esan behar badut, bertsolaritza betidanik deigarria suertatu izan zaidan gai bat den arren, ez naiz bertsozale amorratu bat. Hau da, hirian edo auzoko jaietan bertso saio batzuk egon direnean, gustura asko ikusi izan ditut eta asko gozatu izan dut momentu hartan, baina ondoren, ez dut bertsolaritza asko jarraitu.

Alabaina, gaia eskaini zidatenean, non bertan bertsolaritza jorratzen zen, oso identifikatua sentitu nintzen; bada, nire Lehen Hezkuntzako etapan, aurrerago sakonago hitz egingo dugun proiektuan parte hartu nuen, “gu ere bertsoan” proiektuan hain zuzen ere. Hori gutxi balitz, gainera, iazko praktikaldian zehar ere, proiektu hau abian ikusteko aukera izan nuen beste ikuspegi batetik.

Hori dela eta, bi arrazoiengatik erabaki nuen honako lan hau burutzea: lehenengoa, burura etorri zitzaizkidan oroitzapen on horiengatik; eta bigarrena, bat-bateko bertsolaritza bezalako gaiak asko erakarri ninduelako. Izan ere, euskal kulturarekin bat datozen tradizio eta ohiturek nire arreta oso erraz bereganatzen dute; are gehiago ere, aspalditik dantza talde batean nago, beraz, euskal kulturarekin betidanik izan dudan atxikimendu horren adibide bikaina da hau.

Bertsolaritzaren gaira itzuliz, proiektuaz gain, bat-bateko bertsolaritzak Lehen Hezkuntzan izan zezakeen eragina zein nolakoa zen ikustea interesgarria iruditu zitzaidan, eta are gehiago jakinda etorkizun batean ikastetxe batean irakasle gisa egon naitekeela tankerako jarduerak egiten. Beraz, ondorengo gaia nahiz eta agian guztiz ezaguna ez izan niretzako, oso gogotsu hartu dudan lan bat izan da.

MARKO TEORIKOA

Ahozko literatura oso gai zabala da, non honakoa, modu askotara definitu daitekeen; esaterako, Jon Kortazarrek (1997, 14), horrela definitzen du orokorki ahozko literatura gisa har dezakeguna: “balio estetikoa ikusten diogun hitzezko produkzio guztia, ahoz igorria eta giza elkarte batek dirauena, errepika bakoitzean birsortuz”.

Hala ere, ondo dakigun moduan, ahozko literaturak hainbat alderdi hartzen ditu aintzat, besteak beste; lirika, narratiba, antzerkia... non aipatutako alderdi hauek bi motatakoak izan daitezkeen Kortazarren (1997) arabera: tradiziozkoak eta ez tradiziozkoak.

Tradiziozkoak, igortzen diren ahozko literatura horiek dira; komunitateak berea egiten du eta diakronikoki irauten du komunitatean ahaz aho igorritz. Tradiziozko generoek joera dute sorkarien egileen izenak ahazteko; eta batik bat, honako hauek dira:

- Koplak zaharrak: Koplak dira eta gehienetan sortan, kateatuta kantatzen dira. “Zaharrak” dira gure herri-tradizioan zaharrenetarikoak direlako.
- Baladak: Baladak kantu narratibo laburrak dira eta estiloezaugarri bereziak dituzte, gainerako generoetatik bereizten dituztenak. Euskal literaturaren barruan erromantze izena erabili da aspalditik, baina azken mende-laurdenetik hona izen biok bereiztera jotzen da. Europako literaturaren terminologian balada erabiltzen da orokorrean. Gaztelar erromantzea, balada orokor horren barruan eredu berezia izango litzateke. Euskal baladen errepertorioak, ostera, Europako baladen corpusarekin zerikusi argiagoa daukara esan daiteke.
- Poesia ludiko-koralak: Berez, sailkatzeko gaitzak dira era honetako txatalak, baina denetan alderdi jostagarria eta kantua batzen denez, hortik datorkio izena. Dantza, kantu, jolasa dago guztietan, eta baita errepikatzen diren leloak ere. Herri literaturako poesietako ohiko osagaiak dauzkate: dantza, musika eta letra.
- Ipuinak: Ipuina, asmatutako gertakizunen kontra da, gizartean belaunik belaun igaro dena, taldearen barruan, egile edo jatorrizko bertsoaren berririk eta zantzurik gabe. Kontatutako gertaerok ordena logiko batean kateatzen dira, prosaz esanda, eta horren emaitza ipuina da.

- Errefrauak: Errefrauak esaldi laburrak dira, gehienetan elipsiaz ulertu beharrekoak; batzuetan esaldi izatera ere ez dira heltzen, hitz bi ere nahikoa izaten baitira errefraua osatzeko. Baina bere laburrean, errefrauak herri jakituria jasotzen du bizitza eta inguruarekin zerikusia duten hainbat gai edo arlotan.
- Herri antzerkia: Herri-antzerkiaren barruan, pastoralak dugu adierazpen tradizioaletan garrantzitsuena. Halakoetan, testua bertsoz zein kantuz emango zen, baina testuarekin batera, ikuskizunak ere garrantzia izango zuen, ikusteko efektuen bitartez. Testua ez ezik, antzezpenak ere garrantzi handia dauka ikuskizunean, ikusleak harrapatu eta lanarekin goza dezaten. (Paya, 2013) (Etxebarria et al. 2009).

Ez tradiziozko ahozko literatura, ordea, une bateko ekintza batean gertatzen da; ez dago errepikapenik eta ez dago tradiziozko (hau da, nahiz eta agian denborarekin tradiziozkoa gerta baliteke ere, hasiera batean ez dago errepikapenik).

Ez tradiziozko literaturaren barnean, Euskal Herrian badugu sakonki nagusitzen, gailentzen eta distira egiten duen ahozko literatura mota bat, bat-bateko bertsolaritza hain zuzen ere. Hori dela eta, gertutasunagatik eta euskaldunon kulturako ikur nagusienetako bat izateagatik, bertatik bideratuko dut ahozko literatura den bezalako gai zabal hau.

Izan ere, bat-bateko bertsolaritzaren arrakasta hau ez da egun batetik bestera jazo; beraz, gaian sakondu aurretik, komenigarria da jakitea bertsolaritza (bere osotasunean) zertan oinarritzen den eta zein testuinguru jasan izan duen bere historian zehar.

Hala ere, bertsolaritza definitzea ez da lan erraza; eta horretarako, Jon Kortazarrek idatzitako *Euskal literaturaren historia txikia* liburuan oinarrituko naiz hasteko, non honek dioen, bertsolaritza, herri literaturako generoa dela, eta poemak kantatuz egin ohi dela.

Xabier Payak, bestalde, honela definitzen du bertsolaritza: “Bertsolaritza diskurtso neurtu, errimatu eta kantatuen artea da. Bertsolariak, arte horretan diharduen sortzaileak, bigarren batek proposatutako gai baten zein berak hautatutako beste baten inguruan pieza bat –bertso bat– kantatzean datza” (Paya 2013, 27).

Aldiz, Joxerra Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egañaren (2001) eskutik sortutako *Bat-bateko bertsolaritza* liburuan, kantatuz, errimatuz eta neurtuz burutzen den berbaldi bat bezala definitzen da; nahiz eta doinua, errima eta neurria bertsoaren alderdi teknikoak baino ez

diren. Izan ere, defendatzen dute bertsoari kalitate maila bere arrazoibidearen indarrak edo bere balio poetiko-erretorikoek emango diotela.

Definizioaz gain, bertsolaritzaren konplexutasuna ulertzeko, beste ezaugarri batzuk ulertzea beharrezkoa da. Izan ere, askok uste duten ez bezala, bertsolaritzan ez da ezerezetik sorturiko bat-batekotasunik gertatzen, errepentizazio bat baizik, gaien aktualizazioa, motiboena, esaldi eginena, une jakin batean kanporatzen diren errima prestatuena.

Are gehiago ere, defendatzen da, bat-batekotasunak baino gehiago memoriak egiten duela lan, bada, bertsolaritzan momentuan behar dena "almazenetik" ateratzea da. Beraz, esan daiteke formulak aplikatzearen artea dela.

Hala ere, honen atzean noski dagoela sormen lan bat, bada, formulek, beraiek bakarrik, ez baitute bertso onik ziurtatzen. Bersto on bat ziurtatzeko, bertsolariak, honekin batera, gaiaren koherentzia, egokitasuna eta garapena, eta aldi berean adierazpide poetikoarekin harremanetan dauden zenbait alde eta ezustea landu behar ditu (Kortazar 1997).

Bertsolaritzaren inguruko oinarritzko kontzeptu hauek barneratu ostean ohartzen gara bertsolaritza era anitzeko fenomeno dela. Izan ere, nahiz eta bat-batekotasuna bat bera den beti oinarrian, testuinguru ezberdinetan agertzen da, besteak beste: entzuleen aurrean bat-batean sortzea (aurrerago gu oinarrituko garen horretan), eta orri solteen bidez idazten eta zabaltzen den bat-bateko saioa, bertso-papera izenekoa.

Lehenengo mota honetan, izenak esaten duen bezala, adi dauden entzuleen aurrean bat-batean esaten dira estrofa, akatsik zuzentzeko aukerarik gabe bertsolariarentzat. Teknikaren oinarrian epifonema dago; hau da, aurrena pentsatu behar dena azkena esaten dena da, eta azken horren harira sortzen da estrofa, atzetik aurrera osatuz honakoa (Kortazar 1997).

Honako hau aurrera eramateko, bertsolariak zenbait ezaugarri bildu behar ditu, hala nola; memoria erantzun azkarra, umorea eta ironia eta entzuleen aurrean jarduteko gaitasuna. Azken honekin esan nahi dena zera da, oholta gainean egoteko ahalmena eta entzuleekiko enpatia jaso eta zuzentzen jakitekoa (Lekuona 1982, 126-127) (Kortazar 1997).

Azpimarragarria da, entzuleen aurreko saio hauek aurrera era ezberdinetan eraman daitezkeela; nahiz eta ohikoena, herriko jaietan antolatzen den saioa den. Hala ere, haren

jatorrian, hau da, XIX. mendean, bertsolari bi edo gehiagoren artean erronkak egiten ziren, non bertan, Lore Jokoen barnean bertsolarien arteko lehiaketak sartzen ziren.

Honako saio hauek 1936ko gerraren aurretik instituzionaldu egin ziren; eta gerora, bertsolari txapelketetan izan du jarraipena. Horretarako, bertsolariak, froga ezberdin batzuk gainditu behar dituzte, hala nola; bakarka aritzea, erronka, ofiziotan aritzea, puntu jakin baten jarraipena... (Kortazar 1997).

Idatzitako bertsolaritza, ordea, bertsoa idazten denean gertatzen da, non noizbait, idatzitako bertso hauek argitaratuak izan diren. XIX eta XX. mendean, orri solteetan argitara emateko poemak egiten ziren. Egun, Jon Kortazarren (1997) aipatzen du, behin edo behin ere bertsolariak enkarguz egin izan duela lan, komunitate barneko ekintzaren bat goraiatu edo gaitzestearren.

Hala ere, nahiz eta bertsoa idatziz egin, defendatzen da bertsolariak ez duela bertsoa egiteko modua aldatzen, bada, bat-batekotasuna jendaurrekoa bezalakoa da eta bat-batean adierazten dio norbaiti esandakoa, besteak idatzi dezan. Beraz, kasu honetan gertatzen da bat-batekotasun hori gehiago menpera dezakela, testua zehatzago borobilduz.

Bertsolaritzaren zenbait definizio, deskribapen eta ezaugarri barneratu ostean eta bertsolaritza erak ikusi ondoren; honen poetika edo egitura ulertzea ezinbestekoa da bertsoaren alderdi teknikoa eta konplexutasuna ulertzeko eta bertsolaritzak pertsona nahiz euskal maila duen ekarpena zein nolakoa den jakiteko.

Horretarako, Xabier Amurizak (1995), alde teknikoan ezinbestekoak diren lau ezaugarriren taldekatze bat egiten du, non ondorengo hauek hartzen dituen aintzat: doinua, neurria, errima eta bertsoaren zailtasuna.

Doinua

Lehenengo honekin hasiz, alderdi bitxi bat gailendu behar dugu, bada, bertsolaria musika-tresnaren laguntzarik gabe aritzen da bertsoan, non munduko gainontzeko inprobisatzaileen artean ez den batere ohikoa.

Hori dela eta, bertsolariak ahots sendo eta belarri ona behar duela izan pentsa daiteke, aldiz, ez du horrela zertan izan. Hain zuzen ere, Joxerra Garziak, Jon Sarasuak eta Andoni Egañiak (2001, 82) ondorengoak diote: "komunikazioaren arrakasta edo porrota ez dago

bertsolariaren ahotsaren kalitatearen baitan, aukeraturiko doinuaren eta hura kantatzeko moduaren egokitasunean baizik".

Doinu motak aztertuz, Bertsozale Elkarteko web orriaren arabera, Joanito Dorronsorok, orain artean arlo honetan lan gehien egin duen ikertzaileak, 3.040 doinu ikertu eta sailkatu ditu. Hauek, jatorriaren arabera hiru kategorietan sailkatzen dira: usadiozko doinu herrikoiak (gehiengo handia), neurritz parera datozen doinu berriak eta propio osatutako doinuak.

Neurria

Doinua alde batera utziz eta neurrian onarrituz, Jon Kortazarren (1997) arabera, neurria bertsolaritza egituratzeko unitatea ahapaldia da eta estrofa bera ere zati txikiagoetan bana daiteke. Izan ere, Bertsozale Elkartek haren web orrian argitaratzen duen bezala, bertsoa puntutan zatitu daiteke eta puntu bakoitzak, neurriaren arabera, silaba-kopuru jakin bat izan dezake.

Hori bai, aipagarria da, bertsolari batek, bat-batean bertsoan dagoela, ez dituela inoiz silaba kopurua kontatzen; eta, doinuan edo erriman malguagoak izan daitezkeen bezala, neurrian ez dute honakoa baimentzen, ongi edo gaizki neurtu dezakete soilik (Garzia et al. 2001).

Bestalde, hitz egin berri dugun estrofa atzekoz aurrera osatzen dela da bertsolaritzaren ezaugarri nagusietako bat. Bertsolariak, lehenbizi egiten duena bertsoaren azken oina da, hau da, bi puntuen arteko diskurtsu zatia. Puntu horretatik abiatuta, aurretik kantatuko dituen errimak eta oinak osatzen ditu. Piramidezko egitura horrek, orokorretik zehatzagora doanak, oinarrizko garrantzia du estrofak osatzerakoan.

Bestetik, neurrien inguruan, neurri anitz aurkitu ditzakegu bertso bat osatzeko; hori bai, Jon Kortazarrek (1997) eta Bertsozale Elkarteko web-guneak dioten bezalaxe, orokorki zortziko txikia eta zortziko handia dira erabilienak hamarreko txikia eta handiarekin batera.

Erreferentzia bat izateko, zortziko txikia, zortzi lerroz eta lau puntuz (bertso bikoitietan) osatua dago. Lerroak sei silabakoak izan ohi dira bikoitietan (errima daramaten lerroetan) eta zazpikoak besteetan. Zortziko handia era berean osatzen da silaba zenbakiak aldatuz, bada, bikoitietan 8 silaba zenbakirekin osatzen da eta bakoitietan hamarrekin (Kortazar 1997).

Esan bezala, aurretiaz aipatutako neurriak dira maizen erabiltzen diren neurriak; baina hala ere, badira tradizio handia eta oso erabiliak diren beste neurri batzuk, hala nola, koplak handia eta koplak txikia (Bertsozale Elkarteak 2021).

Hala ere, Joxerra Garziak, Jon Sarasuak eta Andoni Egañak (2001) adierazten duten bezala, badaude sortutako egitura berriagoko beste neurri batzuk (zazpi eta bederatzi puntukoak kasu), non hauek zailagoak izan daitezkeen baina haiekin distira egiteko aukera handiagoa den ondo eginez gero. Horrez gain, bertsolariak haien originaltasuna azaltzeko, bere arrazoi-bidearen konplexutasuna kokatzeko, gaiarekiko distantzia hartzeko... erabiltzen dituzte egitura luzeagoko neurri hauek.

Errima

Neurriaz gain, bertsolarietako beste gako garrantzitsu bat errima da; eta honakoa, bertsoaren amaieran sortzen den homofonia bezala definitzen da. Euskaraz puntua deitzen zaio, honakoa ere homofonia izanik, baina ez da errima bezalakoa guztiz. Izan ere, puntuaren homofonia ez da azentudun silaban hasten eta kontsonantez hasi daiteke (Kortazar 1997).

Joxerra Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egañaren (2001) ustetan, errimak alderdi teknikoaren ardatza osatzen du, eta nahiz eta errima oso aberatsa ez izan, errimatuz ari bagara, bertsoan ari gara.

Errima aberatsa diot, bada, nahiz eta errima beti sail berekoa izan, errima pobreak eta aberatsak bereizten direlako. Esaterako, Bertsozale Elkartearen web-orrian ondo adierazten den bezala, *burua* eta *ordua*, nahiz eta errima izan, errima pobre bat da; eta *elizan* eta *gerizan*, aldiz aberatsa. Izan ere, (an) atzizkian errima-kide izatez gain, aurreko kontsonantean (z) eta honen aurreko bokalean (i) eta hasierakoan (e) ere bat egiten dutelako.

Bertsoaren zailtasuna

Azkenik, nahiz eta aurreko hiru puntuak bezain garrantzitsuak ez izan, bertsoaren zailtasuna azpimarratzea komenigarria da, bada, Bertsozale Elkartearen web-orrian esaten duen bezala, bertsolariarentzat zailtasunik handiena errima-hitz multzo egokia bilatzea da. Bertso berean errima-hitza errepikatuz gero, bertsolariak poto egin duela esaten da; hau, epai-mahaiak eta publikoak gehien "zigortzen" duten akatsa izanik.

Bertsolaritzaren inguruko azalpena eta bertso baten egitura, ezaugarri, baldintzak eta konplexutasuna ikusita, uste dut inork ez duela zalantzan jartzen honen zailtasuna. Ageri da, bertso bat egiterako garaian alderdi asko ukitu eta jorratzen direla, eta arrazoi hauek direla medio da bertsolaritza hain konpletoa.

Izan ere, bertsolaritzak, euskal kulturari ez ezik (beste ahozko literatura motengatik hain bereizgarria izateagatik eta ondorioz euskaldunoi bereziak egiteagatik), pertsona bati egin diezaiokeen ekarpena izugarria izatera iritsi daiteke (hizkuntza aldetik, musikalki, kulturalki...). Hori dela eta, jarraian, bertsolaritzak Lehen Hezkuntzan izan dezakeen garrantzia eta honi egin diezaiokeen ekarpena azpimarratu eta helaraziko dut.

Gu ere bertsotan

Bertsolaritza Lehen Hezkuntzako saioetan ezartzearen ideia, bada, ez da batere berria. Hain zuzen ere, *bertsolaritza ikastetxean* artikuluan (Soraluze 2020) adierazten den bezala, Nafarroan “gu ere bertsotan” programa aurrera eraman zen lehenengo aldiz 1985ean, bertsolaritzaren bidez haurren hizkuntza gaitasunean eta, bereziki, ahozkotasunean eragiteko helburuarekin.

Gaur egun, proiektu hau euskararen eremu osora zabaldu da eta Euskal Herriko zazpi herrialdeek lantzen dute bertsolaritza 400 ikastetxe ezberdinetan eta 200 udal ingururekin. Hori dela eta, ikasturtero, 20.000 ikasle baino gehiagok parte hartzen dute proiektu honetan Bertsozale Elkarteko 45 irakasleren eskutik.

Gipuzkoa da gailentzen den probintzia, bada, bertan, 63 herritan lantzen da bertsolaritza, 145 ikastetxetako 11.000 ikaslerekin eta Gipuzkoako Bertsozale Elkarteko 15 irakaslek esku-hartzearekin.

Era honetan, honako proiektu hau abian eramatean, ikastetxe zein herri mailan zenbait helburu betetzea da erronka; hala nola, bertsolaritza sustatzea ikastetxean eta herrian, euskararen erabilera bultzatzea, ikastetxeaz kanpo haurrek jarraipena ematea zaletasun horri, eta abar.

Izan ere, jarraipen hori eman ahal izateko aukera badaude Euskal Herriko edozein txokotan, bada, Rodriguez Bornaetxeak (1991) haren liburuan argitaratzen eta zerrendatzen duen bezala, Euskal Herri osotik hainbat bertso eskola daude, honakoa baliabide bikaina izanik aipatutako zaletasun harekin hasteko edo sustatzeko.

Aldiz, Lehen Hezkuntzara bueltatuz, ikasleari dagokionez proiektuaren helburuak batez ere honako haueetan oinarritzen dira:

- Bertsolaritzaren oinarrizko ezagutza izatea eta zaletasuna piztea
- Generoaren gaineko hausnarketa egitea, euskararekiko jarrera positiboa indartzea eta hizkuntza komunikaziorako kompetentzia (bereziki ahozketasuna) garatzea
- Jendaurreko emanaldi bat burutzeko oinarrizko betekizunak ezagutzea (Soraluze 2020).

Hala ere, batzuek galdetu diezaiekete haien buruei ea nola eraman daitekeen “gu ere bertsotan” proiektua aurrera hainbeste ikastetxetan, 20.000 ikasle baino gehiago izanda eta 45 irakaslerekin bakarrik.

Bada, bereziki, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan lantzen da “gu ere bertsotan”, eta bertan, bertsolaritza saioak ematen dira ikasturte osoan zehar, hamabostean behin ordubetez (astero ere izan daiteke). Euskara ikasgaiaren barruan izan ohi da, eta ikastetxearekin adosten da ordutegia.

Beraz, esan bezala Bertsozale Elkarteko irakaslea etortzen da hamabostean behin ikasgelako dinamika lideratzera, non gela horretako tutorea ere gelan egon ohi den. Era honetan, bi irakasleen artean aukera dute ikasturtean zehar egingo diren ekimenak adosteko eta proiektua ikasgelara egokitzeko.

Irakasle espezialistek bertsolaritzaren ezagutza sakona dute, eta hizkuntzari edo hezkuntzari lotutako titulazioak izateaz gain, formazio saioak jasotzen dituzte Bertsozale Elkarteak antolatuta (Soraluze 2020).

Gainera, badago Bertsolariaren Curriculuma, non bertan “gu ere bertsotan” proiektuko ardatz metodologikoak, bertsolaritzaren bidez lantzen diren arloak, arlo bakoitzeko edukiak eta ebaluazio adierazleak zehazten ditu (Aizpurua et al. 2008).

Izan ere, 2008an argitaratu zen Bertsolaritzaren Curriculuma Lehen Hezkuntzan lana. Bertsozale Elkarteak HUHEZI-ren aholkularitza pedagogikoaz egina da, eta bat dator Oinarrizko Curriculum Diseinuaren zein Euskal Curriculumaren oinarriekin (Soraluze 2020).

Bertan, bertsolaritzaren bidez oinarrizko hezkuntza gaitasunak lantzen dira, Lehen Hezkuntzako Curriculumean jasota datozenak: Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, giza eta arte-kulturarako gaitasuna, ikasten ikasteko gaitasuna eta norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (Aizpurua et al. 2008).

Arrazoi hauek direla medio, bertsolaritzak Lehen Hezkuntzan ikasleari egiten dion ekarpena sekulakoa izatera heldu daiteke. Izan ere, ikasleak batez ere lau arlo lantzen ditu (hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun sozioala eta pertsonalak), arlo bakoitzaren baitan hainbat edukitan sakonduz: jarrerazko, kontzeptuzko zein prozedurazko edukiak.

1. Hizkuntza

Lantzen den horietako arlo bat, aurreikusteko modukoa den bezala, hizkuntza da. Izan ere, bertsolaritza bat dator hizkuntza mailan garatu diren ikuspegi berriekin, eta, hizkuntzaren ikuspegi komunikatibo zein diskurtsiboan oinarrituta, errotiko hiru funtzio hartzen ditugu aintzat: funtzio komunikatiboa, funtzio errepresentatzailea eta funtzio ludikoa (Aizpurua et al. 2008).

Hizkuntzan, bereziki hiru azpiarlo lantzen dira sakonki: Euskeraren egoera eta bertsolaritza euskararen normalizazioan, hizkuntzaren izaera bertsolaritzan eta gaitasun komunikatiboa bertsolaritzaren lanketan. Azken puntu honek, hainbat azpigai hartzen ditu aintzat; besteak beste, gaitasun pragmatikoa, gaitasun soziologiko eta kulturala, gaitasun diskurtsiboa, gaitasun testuala, gaitasun estrategikoa eta gaitasun gramatikala (Aizpurua et al. 2008).

Orokorrean, diskurtsoak jarrera kritikoz aztertzea, testuaren ezaugarriak identifikatzea, diskurtsoak eraikitzea (ahoz zein idatziz), euskalkien aniztasunaz jabetzea, sentsibilitate estetikoaren lantzea... bilatzen da bertan (Aizpurua et al. 2008).

2. Kultura

Kultura, esan bezala, lantzen den beste arlo bat da, non honakoa gabe bertsolaritza hizkuntza, musika eta trebetasun pertsonal multzo bat biltzen dituen teknika soil bat izango litzateke, joko didaktiko gisa hartzeko modukoa, bada, haur eta gazteen garapen intelektual eta linguistikorako interegarria izango litzateke, baina nortasunari ez lioke ekarpenik egingo (Aizpurua et al. 2008).

Kulturaren arlo honetan landu nahi diren edukiek, bertsolaritza bere ekosistema kulturalaren baitan finkatzen dute, euskararen kultura ezagutzeko oinarriak azalduz. Curriculumaren helburuak besteak beste ere hauek izaten dira, ikasleei herri eta kultura bateko kide sentitzearen zortea eskaintzea (Aizpurua et al. 2008).

Kulturak ere baditu jorratzen diren beste azpiarlo batzuk; hala nola, euskal kulturaren ezaugarriak: bizia, dinamikoa eta anitza, kulturaren dimentsioak eta bertsolaritza: ertzeko kultura adierazpena. Bertan, batik bat, kantu inprobisatua kultura errealtate unibertsal gisa

ezagutzea, tradizioko sorkuntzak oroimenaren bidez barneratu eta taldean kantatzea, bertsoa osagai duten euskal ohituretan parte hartzea, etab. lantzen da (Aizpurua et al. 2008).

3. Musika

Hirugarren arloari ekinez, musikari hain zuzen ere, lehenago esandakoa gogoratu beharra dago, hau da, bertsolaritzaren zutabeak nagusiki ondorengo hiruak direla: errima, neurria eta doinua. Izan ere, bertsogintzan lehenengo biei berebiziko garrantzia eman zaie, eta, neurri batean, musika bigarren maila batean utzi da (Aizpurua et al. 2008).

Alabaina, kontuan hartu behar dugu musikak, kantuak edo bertso-doinuek eragin handia dutela bertsoaren osaketan eta komunikazio gaitasunen garapenean. Alde horretatik, ahotsa adierazpena eta komunikazioa garatzeko bitarteko ideala da, bere jarduera bikoitza erabil baitezake, hizkuntza eta kantua, alegia. Horren ondorioz, abestien ezagutza abantaila bihurtzen da gaur eguneko ikasleen artean (Aizpurua et al. 2008).

Gainera, jarduera interpretatzaile, sortzaile eta entzumenezkoetatik abiatuta, hurrek soinuez, erritmoez eta kantuaz beraz gozatu behar dute eta horiekin jolas egin, euren sen musikala garatu eta soinu-ingurunearen aurrean kritikoak izateko. Bestalde, honakoaz gain, musikaren bidez, doinuen ondarea, entzute aktiboa, intonazioa eta igorpena, isiltasuna, abestiak jendaurrean interpretatzea... bezalako alderdiak jorratzen dira (Aizpurua et al. 2008).

4. Trebetasun pertsonal eta sozialak

Azkenik, bertsolaritzak ikasle bati egin diezaiokeen beste ekarpen bat trebetasun pertsonal eta sozialen arloan oinarritzen da. Izan ere, Bertsolaritzaren Curriculum-ean (2008) aipatzen den bezala, "bertsolaritza ahozkoa da, inprobisatua, jendaurrekoa. Sormen ekintza errepikaezina da, gertatzen den uneari erabat atxikia eta entzuleekiko feedbackean oinarritzen dena. Jendaurreko inprobisazioa izaki, trebetasun ugari eskatzen ditu: norberegana konfiantza, besteen lekuan jartzen jakin eta besteak ulertzea, edozein egoerataraz egokitzea, norberaren emozioen erregulazioa, jendaurrekotasuna, komunikatzaile ona izatea, oroimena, gauzak hainbat erataraz adierazten jakitea, ikuspuntu desberdinak erabiltzeko gaitasuna..."

Hori dela eta, arlo honetan, trebetasun pertsonalak, trebetasun sozialak eta hezikidetzaren ikuspegiak bezalako gaiak jorratzen dira jendaurrekotasuna, dialektika eta lankidetzaren besteen lekuan jartzea, balioak, parekidetasuna, zentzu kritikoa, aniztasuna, sormena... bezalako aspektuak landuz (Aizpurua et al. 2008).

Ikusten den bezala, bertsolaritzak ikasleei egiten diezaieketen ekarpena alderdi askotan izugarria izatera iritsi daiteke, aitzitik, honako ekarpen guzti hauek ikasleen eskutara iristeko era zehatz batera egin behar da lan.

Izan ere, erakutsi nahi diren eduki eta konpetentziak helarazteko, ikasleei ahozko zein idatzizko eredu errealak eskaintzen zaizkie: bat-bateko saioak ikusiz, edo bertso zaharrak zein berriak entzun eta taldean abestuz. Gainera, bertsoak egiteko oinarrizko teknika lantzen da, baita jendaurrean nola eman ere (Soraluze 2020).

Azkenik, ikasleak, beren testuak ekoiztu eta jendaurrean eman ditzaten, egoera komunikatibo errealean jartzen dira. Hala nola herriko ohituretan parte hartuz, ikastetxeko ekitaldietan bertsoak abestuz edo ikasturte amaieran gurasoen aurrean jaialdia eskainiz (Soraluze 2020).

Horretarako, ikasturtean zehar, ikus-entzunezko materialak baliatzen dira. Ikasle bakoitzak bertsolaritza lantzeko ikasliburua du, "gu ere bertsoan" izenekoa, non bertsoaren teknika eta hizkuntza lantzeko ariketak dakartzan eta ikasturtean zehar sortutako bertsoak ere bertan idatziz jaso daitezkeen. Hala ere, ondoren irakasle bakoitzak materiala ikasgelako errealitatera egokitzen du (Soraluze 2020).

Amaieran, ikasleen bertso bilduma bat osatzen da, bertso meta izenekoa. Bertan, proiektuan parte hartzen duten ikastetxe guztien artean, ikasleek jarritako bertsoekin bilduma bat osatzen da eta, ikasturte amaieran, ikasle bakoitzari ematen zaio. Ikasgela bakoitzak bere bertso sorta prestatzen du, taldeko argazkiarekin batera bilduman agertzeko (Soraluze 2020).

ERREALITATEAREN KONTRASTEAK

Behin gai sakondu eta zenbait iturri fidagarri aztertu ondoren; bertsolaritzak, edo are zehatzago, “gu ere bertsotan” proiektuak Lehen Hezkuntzan duen protagonismoa zein nolakoa den eta bertsolaritzak hezkuntzan egin ditzakeen ekarpen ezberdinak zeintzuk diren aztertu ditut. Alabaina, azalpenetik edo esaten denetik errealitatera ba al dago jauzirik?

Honako hau frogatu eta egiaztatzeko, gai adituak diren bi pertsonekin elkarrizketatu naiz, Mikel Artola eta Aitor Mendiluzerekin hain zuzen ere. Mikel Artola, ikastetxeetan bertsolaritza irakaslea da; gainera, Bertsozale Elkartearen eta “gu ere bertsotan” proiektuan irakasleen formazioaz arduratzen da eta metodologiaren ikerketarekin ari da egun. Aitor Mendiluze, aldiz, “gu ere bertsotan” proiektua hainbat ikastetxetan aurrera eramaten duen bertso irakaslea izateaz gain, bertsolari profesionala da.

Hori dela eta, gai jarriak dauden bi aditu hauekin bildu naiz teoriarantz jartzen duena eta errealitatea kontrastatzeko; era honetan, benetan Lehen Hezkuntzako ikasleengan bertsolaritzak eta “gu ere bertsotan” proiektuak duen eragina ikusteko eta honen bidez ikasleei egin ditzaketen ekarpenak ezagutzeko.

Proiektuaren funtzionamendua

Horretarako, hasteko, “gu ere bertsotan” proiektua zertan oinarritzen zen eta haren funtzionamendua ekarri behar dugu gogora, bada, teoriarantz esaten da Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan lantzen dela batez ere, eta bertan, bertsolaritza saioak ematen direla ikasturte osoan zehar, hamabostean behin ordubetez euskara ikasgaiaren barruan. Tutorea ere gelan egon ohi da ere, eta era honetan, bi irakasleen artean aukera dute ikasturtean zehar egingo diren ekimenak adosteko eta proiektua ikasgelara egokitzeko.

Mikelek nahiz Aitorrek honako hau esan bezala betetzen dela baieztatzen dute, baina ondoren, lan egiteko era ezberdinak daudela. Hau da, azken finean, ikastetxe edo ikasgela guztietan ez dituzte saio berberak egiten, eta bertako ikasleetara egokitzen direla.

“Nik esango nuke errealitatea edo aplikazioa teoria bera baino zabalagoa dela, esan nahi dut, oso egoera ezberdinetara egokitzen gara, oso ikasmaila, euskara maila, jardun maila ezberdinetara... eta hor, askotan, irakaslearen arteko lankidetzak ere aldatu egiten da taldearen arabera. Talde batzuetan nik bakarrik eman dezaket saio osoa inongo arazorik gabe, beste batzuetan irakaslearen pisua handiagoa da eta parte-hartzea handiagoa da.” (Aitor Mendiluze, 1.2 eranskina).

Gainera, nahiz eta normalean 5. eta 6. mailan eskaini proiektua, zenbait ikastetxetan 3 - 4. mailan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ematen dituzte zenbait saio. “Egia da, ba maila aldetik bost eta seirako planteatu bagenuen ere, ez dela bost eta sein bakarrik lantzen; hemen adibidez eskola batzuetan lau eta bosten lantzen dut (Donostian), Debagoiena aldean ere hirugarren mailan lantzen da, lekuren batean DBH-n ere bai...” (Aitor Mendiluze, 1.2 eranskina).

Helburuak

Bestetik, “gu ere bertsotan” proiektuak dituen helburu nagusietara joaten bagara, biek oso argi dituzte zeintzuk diren jorratu beharreko helburuak, teorian aipatutako horiek hain zuzen ere. Gainera, helburu haiek egunerokotasunean betetzen direla baieztatzen dute biek. Helburu hauek, gehien bat, bertsolaritza ezagutaraztean eta bertara zaletzean oinarritzen da, era batera edo bestera, eta ondoren, horren bitartez, Bertsolaritzaren Curriculumean azaltzen diren lau arloak lantzea, hala nola: hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun sozialak eta pertsonalak.

“Badago, batetik, bertsolaritzaren oinarritzko ezagutza ikasle guztiek izatea. Gero, bestetik dago, zaletzea, ezagutzarekin bat etorriko litzatekena edo nahi duenak gero bertso eskolan jarraitu dezan, edo zaletasun bat piztea edo saiatzea. Gero dago, euskararekiko jarrera positiboa izatea eta horretan laguntzea. Orduan ba, suposatzen da bertsolaritzak motibazioa pizten diela euskarara gerturatzeko. Eta gero, badago ere kompetentzien aldetik, komunikazio gaitasuna lantzea; eta horrekin batera curriculum (Bertsolaritzaren Curriculum) daukagu, eta curriculum horretan baita ere agertzen da: musikarako kompetentzia, kultura eta trebetasun sozial eta pertsonalak lantzea. Horiek dira pixka bat helburu orokorrak.” (Mikel Artola, 1.1 eranskina).

Hizkuntza

Beraz, curriculumari heltzen badiogu, teorian eta orain bezala, ikusten dugu batez ere lau alderdi lantzen direla, horietako lehenengoa hizkuntza izanik. Beraz, ikasleek zein nolako trebetasun edo gaitasun eskuratzeaz gain, ea hori nola ikusten edo ebaluatzen duten adierazi didate.

Gaitasun edo trebetasunen ikuspegitik, Mikel Artolak esaterako, aipatzen du gaitasun ezberdineko ikasleak dituztenez, bakoitzarekin gaitasun ezberdinak jorratzen direla, beraz, ikasleei egiten zaien ekarpena haien beharrei egokituta daude. Azken finean, eremu soziolinguistiko oso ezberdinetan ibiltzen dira, beraz, eremu horietara egokitzea behartuta

daude, honela, bakoitzen beharretara egokituz. Hala ere, gehien bat, hizkuntza fintzeko, hiztegia aberasteko... bezalako trebetasunak garatzeko alderdiak eramaten dira aurrera.

Gaitasunen bidetik jarraituz, azpimarragarria da gaur egun bat-bateko bertsolaritzari bereziko garrantzia ematen ari zaiela. Izan ere, esaterako Aitor Mendiluzek, defendatzen du nabarmenagoa dela ezberdintasuna eta haren onurak, bada, paperean denean askoz denbora gehiago izateaz aparte, hizkuntza ezberdin bat erabiltzen da.

Bat-bateko bertsolaritzan, ikasleak batek esandakotik, besteak esandakotik... kontzeptuak jasotzen joaten dira poliki-poliki. Adibide gisa jartzen du, askotan, saio bakarrean, ikasle batek gainontzeko ikasleei gustatu izan zaien esaldi bat, edo esamolde bat, edo hitz bat bota duenean, besteek honako hau hartu izan dutela segituan eta erabiltzen hasten direla. Era honetan, beraz, besteen baliabideetaz jabetzen joaten dira; eta hori, jolas baten barruan gertatzen da, hau da, ez da apuntatzen joaten direlako edo ez da gauza arautu bat, azken finean gustatu zaielako erabiltzen dute.

Gaitasun ezberdinen ekarpenetaz gain, ikasleei egiten zaie ekarpen handi bat motibazioan suertatzen da, euskaraz egiterako motibazioan hain zuzen ere. Izan ere, Mikel Artolak dioen bezala, bertsolaritzak ikasleak euskaraz egiteko gogoia izan dezaten bultzatzen du behintzat momentu hortan; gainera, ikusten omen da, motibazio hori existitzen dela eta "engantxatzen" direla.

Aldiz, Aitor Mediluzek azpimarratzen du euskararekiko atxikimendu pertsonal bat lantzen dela. Gelan, euskara ikasgai bat izatetik, elementu ludiko bat izatera pasatzen dela eta ikasleek ondo pasatzen dutela abesten, sortzen, asmatzen... eta horrek euskararekiko beste jarrera bat sortzen edo garatzen die.

Noski, honakoa ebaluatzea ez da erraza izaten, bada, irakasle bakoitzak 700 ikasle inguru ditu, eta hortaz, zaila egiten da banaka ebaluatzea. Kontuan hartu behar da, gainera, 15/16 aldiz joaten direla urtean eta normalean bi urte izaten direla; ondorioz, guztira 32 klase dira egoten direnak. Arrazoi hauek direla medio, Mikel Artolak defendatzen du 32 klasetan pertsona bati hizketan ezin zaiola beste munduko ebaluaziorik egin.

Hori dela eta, Mikel Artola berak esaten du askotan ebaluazio hori momentuan ikusten dela eta batez ere intuizioz egiten dela. Gainera, gelan egoten den tutorearen ebaluazioaren arabera ibiltzen dira, beraz, nahiz eta gela horretako tutorearen laguntza izan, ebaluazio irizpide ezberdinetara egokitu behar dira.

Aitor Mendiluzek, aldiz, zentzu batean Mikel Artolarekinn bat egiten du, bada, aipatzen du hamabostean behin joanda, haien pertzeptzioa ere neurri batean mugatua dela eta eskolako edo gelako irakaslearekin baloratu beharra dagoela.

Hala ere, Aitorrek dio, ebaluagarria dela, bada, zenbait alderdi behatu daitezke non haien eboluzioa argi ikusi daitekeen. Esaterako, kurtso hasieran ikusten da ikasleek bat-batekotasunean akats nabarmenak egiten dituztela edo gabeziak dituztela gauzak esaterako garaian. Alabaina, ikasturtean aurrera egin ahala, Aitor konturatzen da ikasleek akats horiek zuzentzeko gai direla eta normalean sartuko ez lituzketen hitzak, makuluak edo esamoldeak sartzen dituztela esan nahi duten hori esatea lortzeko eta behar bezala doinura egokitzeko. Aitorrek arabera, horrek esan nahi du ikasleak beraien hiztegia garatzen ari direla, baina baita hiztegi horrekiko nolabaiteko sen bat. Behar dituzten hitz horiek errazago ekartzeko gaitasun bat.

Arrazoi hauek direla medio, Aitor Mendiluzek esaten du gaitasunaren eboluzio hori honelako gauzetan jasotzen dela. Hori dela eta, dio ebaluazioa ez dela gauza kuantifikagarri bat, hau da, ez dela kontrol edo test batean agertuko litzatekeen gauza bat; baina esan bezala, kualitatiboki dio jabetzen direla ikasleek jasaten duten eboluzioaz, bai gelan egoten ohi diren tutoreak eta bai bertsolaritzako irakasleak.

Kultura

Kulturaren alderdian murgildu ezkerro, errazagoa omen da ebaluaketa esaterako, bada, kulturalki gutxi gorabehera ikastetxe guztietan pautu berberak jarraitzen dira. Hala ere, gaiaren abiapuntua ezberdina izaten da eremu linguistikoaren arabera.

Izan ere, eremu erdaldun batzuetan, ez dakite bertsolaritzaren existentziaz, hori dela eta, kultura aldetik ikasleei egiten zaien ekarpena bertsolaritza ezagutaraztea dela azpimarratzen dute Mikel Artolak eta Aitor Mendiluzek. Hori, ariketa ezberdinen bitartez eta ikasturtean zehar erabiltzen ditugun eredu bitartez ikustarazten saiatzen dira, era honetan, bertsolaritzaren oinarri bat eskuratuz.

Ondoren, bertsolaritza ezagutu ostean, zenbait bertsolari edo mundu honetako pertsona ezagunenak zeintzuk diren ezagutaraztea da, gaur egunekoak nahiz historikoak; besteak beste, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Lazkao Txiki, Bilintx... Eta horrekin

batera, zenbait bertso ezagunen transmisioa ematen da, non hauek kantatu egiten dituzten; batik bat, Pasaiaiko plazatik, Orioko balea, etab.

Honakoa egiteaz gain, Mikel Artolak dio kulturaren transmisioaren ekarpen hau oso garrantzitsua dela, baina ondoren ikasleek ere bertotan egin behar dutela, hau omen baita kulturaren hobereen murgiltzeko baliabidea. Era honetan, defendatzen du ikasleak bizitzen duela bertsolaritza eta haren kultura, ez irakasleak kontatu diola, eta hori ikasleei askoz interesgarriagoa suertatzen zaiela azalpen toeriko huts bat baino.

Bestalde, Aitor Mendiluzeren ustetan jakinminean dago gakoa; eta hori da kulturalki egiten den ekarpen handiena. Aitorrek esperientziatik abiatuta, ikasleek bertsolari batzuk ezagutu ahala, zerbaitek arreta ematen die; eta hori lantzean, haren bertsoren batekin batera, ikasle askori gaian sakontzeko jakinmina pizten zaie eta haren inguruko informazioa bilatzen hasten dira, edo beste bertsolari batzuk ezagutu nahi dituzte, etab. Hori dela eta, Aitorrentzat gakoa ikasleen jakinmina eta interesa piztean datza.

“Esango nuke kulturalki, ematen zaiena baino gehiago pizten zaien jakinmina ere badagoela. Hori ere ekarpen handi bat da. Bertsolari batzuk ezagutu ahala, ba bueno, zerbaitek arreta ematen die, “ba Lazkao Txiki horrela eta horrela ibiltzen zen...”, edo “Txirritari ez daki zer gertatu zitzaion...”, edo hemen Donostian ba “Bilintxek izan zuen zorte txarra...”. Eta hori lantzen duzunean, eta haren bertsoren bat, ba askori pizten zaie honelako galdera ikur txiki bat behintzat, ezta? Eta bueno, ba bilatzen dute, aldiz, batzuk eskatzen dizute “aizu, ekarri beste bertsolari gehiago” eta honelako gauzak. Orduan nolabait, kulturaren arloa bertsolaritzari dagokionez pixka bat horrela begiratzen dugu.” (Aitor Mendiluze, 1.2 eranskina).

Musika

Kultura alde batera utziz eta musikan oinarrituz, Mikel Artolak aipatzen du ikasleei alderdi honetan egiten zaizkien ekarpenak zailagoak egiten zaizkiela ikusten edo ebaluatzen. Azken finean, dio, haietako asko filologoak edo hizkuntzatik gertu xamar dabiltzan jendea direla, eta ondorioz, haietzako errazagoa dela ikusten hizkuntzaren gaia musikaren gaia baino. Hala ere, horrek ez du esan nahi musikan ez denik egiten ekarpenik, bada, bertsolaritza musikarekin batera doan ahozko literatura bat da, beraz, musika eta bertsolaritzaren arteko lotura nahitaezkoa da.

Esaterako, Aitor Mendiluzek nahiz Mikel Artolak azpimarratzen dute, ikasleei egiten zaien ekarpenerariko bat doinua ezagutzea dela. Izan ere, saioz saio, zenbait doinu ikasi eta abestu egiten dituzte ondoren hauek bertotan erabiltzeko; era honetan, euskal kulturari dauden hainbat doinu famatu bereganatuz. Honako hau, musikaren ekarpen kulturalera izango litzateke.

Alabaina, honekin batera, agian musikalki egiten zaien ekarpen handiena dator, testuaren musikaldadearen lankera hain zuzen ere; hau da, bertso bat osatzerako garaian, asmatu behar duten testu hori doinu baten gainean jartzea.

Bi aditu hauek adierazten dute bertso bat neurrian sartzeko ez dela metrika silabikoa erabiltzen, hau da, ez direla silabak kontatzen; baizik eta metrika musikala erabiltzen dela, esan nahi den hori neurrira egokitzea belarriz egin behar dela hain zuzen ere. Adibidez, zortziko txiki batean zazpi eta sei silabak kontatzen egon beharrean bertso bat egiteko, zuzenean musikara egokitu behar direla ikasleak.

Ikusten den bezala, modu honetan, ikasleak doinura egokitu behar dira. Hori dela eta, doinuaren eta testuaren arteko lotura hori jazotzean, musikaren lanketa oso aberats bat suertatzen da ikasleengan. Ekarpenean hau, beraz, bat-batekoan du eragin handiagoa, beste behin ikusiz bat-batekoaren garrantzia.

Trebetasun sozial eta pertsonalak

Azkenik, Bertsolaritzaren Curriculumeko azken alderdira jotzen badugu, esan bezala, trebetasun sozial eta pertsonalen lanketa egiten da bertan. Mikel Artola nahiz Aitor Mendiluzek, berebiziko garrantzia ematen diote alderdi honi, alderdi garrantzitsuenetariko bezala hartuz. Gainera, uste dute, Lehen Hezkuntzako azken etapa horretan batez ere dela garrantzitsua.

Esaterako, ondorengoak dira Aitor Mendiluzeren hitzak honen inguruan: “Hirugarren zikloko ikasleekin, jende aurrean jartzen ikastea adibidez, nire ustez oso garrantzitsua da eta oso adin tarte interesgarria horretarako. Txikiagoek ez dute konplexurik. Eta handik gorakoan agian konplexuak garatuegiak dituzte eta hor bada garai bat non tresna horiek ematea izugarri garrantzitsua den, ez bertsoarako, baizik eta haien garapen pertsonalerako.” (Aitor Mendiluze, 1.2 eranskina).

Garapen pertsonalaren inguruan, batez ere jendeurrekoak du eragina; azken finean, zure burua gainontzekoen aurrean jartzen duzulako eta besteen aurrean abestu behar duzulako bakarrik. Horretarako, Aitor Mendiluzek adibidez, saio oso bat hartzen du honen inguruan soilik hitz egiteko.

Izan ere, dio badela adin tarte bat non bere ustez klabea den jendeurrerako estrategia batzuk ematea eta bertan trebetasunak, estrategiak, trikimailuak, etab. erakustea eta lantzea, gerora hori balia dezaten bertsolaritzan, zein gelako aurkezpenetan, zein edozein ekintzetan. Aitorrek dio, trebetasun horiek ondoren bizita osorako izango dituztela; eta haiek, nahiz eta bertsoekin landu oinarritzko testu sinple sinpleekin, ondoren beste edozer gauzatarako ere balio diela estrategiak berdinak direlako. Hori dela eta, gai honetan asko inziditzen dute, eta ahalegintzen dira ikasleek gainontzekoen aurrean hitz egiterako garaian izan ditzaketen beldur edo lotsa horiek ezabatzen.

Bestalde, bertsolaritzaren bidez trebetasun sozialak landu daitezke eta honakoa ezin da ekidin. Azken finean, Aitor Mendiluzek esaten duen bezala, bertsotan aritzean elkar entzun beharra dago, norbaitek esandako horri erantzun behar diozulako eta gai zehatz baten inguruan jardun behar dutelako nahiz eta bertsotan izan.

Mikel Artolak, aldiz, azpimarratzen du bertso saioak normalean ekitaldi integratzaileak direla; hau da, entzulea derrigorrezkoa da eta hura gabe ez dagoela bertso saiorik. Gainera, bertsolaria bat-batean ari denez, entzuleak eragin handia du bertsolariarengan, eta hori pertzibitzen du entzuleak. Hori dela eta, entzulea sentitzen da saioaren parte. Ondoren, honakoa ikasleekin ere gertatzen da, horrela, kohesio giro bat sortuz; bertan, oso ekarpen interesgarri bat eginez.

Ekarpenak ikasleengan

Alderdi honetan, bi elkarrizketatuei ikasle guztiengan orain aipatutako ekarpen guztiak betetzen ote ziren galdetu zitzaion. Mikel Artolaren iritziz, asko esatea litzateke hori eta azken finean neurri kontua dela uste du. Hau da, bere ustetan, batzuegan %100ean beteko dira ekarpenak eta beste batzuegan %10ean, eta hori dela eta, ez litzateke ausartuko esatera denengan egiten dutenik ekarpen guzti hori; nahiz eta uste hurbiltzen hasiak daudela.

Aitor Mendiluze, aldiz, argiagoa da eta baiezkoa ematen du nahiz eta beti egongo den salbuespenik. Hala ere, aipatzen du ekarpen hauek ez direla denengan maila berean

betetzen logikoa den bezala, azken finean ikasle bakoitzak bere interesak dituelako eta bere abiapuntuak ere bai.

Gainera, aipatzen du garatzen dituen ekarpen horiek haiek ez dituztela ikusten; esaterako, jendeaurrekotasunaren gaia. Aitorrek ikasleekin lantzen duena ikusi dezake antolatzen den jaialdi edo emanaldi batean, baina horren benetako inzidentzia hurrengo urteetan ikusiko dela defendatzen du. Izan ere, hezkuntza munduan eta are gehiago Lehen Hezkuntzan, azpimarratzen du hezkuntza eraiten dela ondoren fruitua eman dezan; baina fruitu hori urte batzuk pasata ikusten da.

Hala ere, badaki ikasleei egiten zaizkien ekarpen horiek ezin direla neurtu guztiz, ezin direla kuantifikatu, bada, ikasle bati ekarpen mota bat egin zaio kontzeptu bat batez ere bereganatu duelako, beste ikasle bati beste ekarpen ezberdin bat egin zaio beste kontzeptu bat barneratzeagatik, etab.

Ikasmateriala

Materialaren inguruan, honen metodologia aurrera eramaten duen pertsona horrek, hau da, Mikel Artolak, dio asko aldatzen ari direla berrikuntza prozesu batean daudelako. Izan ere, bat-bateko bertsolaritzan gehiago oinarritzen den material bat sortu nahi dute gaur egungo saioak bat-batekoan gehiago oinarritu nahi direlako.

Horretarako, lehen liburuan oinarritzen zen ia material guzti hori aldatzen ari dira; eta beste hainbat gauzekin batera (bat-bateko bertsolaritzara bideratutako fitxa, ariketa... ezberdinak) material digitala sortu dute, non bertsoikasgela.eus helbidetik egin dezaketen lan bat-batekotasunean gehiago oinarrituz. Hau da, azken finean, haiek pixkanaka liburutik askatzen joan nahi dute, eta horretarako material manipulagarriago bat eta mugimendua eskatzen duen material bat sortu dute.

Are gehiago ere, azpimarratzen du, nahiz eta materialik gabe ezin duten lanik egin, libururik gabe erraz egin dezatela lan. Eta ez hori bakarrik, aipatzen du, toki batzuetan liburuak erabat jarraitzeak kalte egin dezakela eta guzti. Hori dela eta, horrek bestelako material bat osatzera eraman dituzte eta egun horretan dabilta.

Aitor Mendiluzek, bestalde, bere esperientzia kontatzen du; eta Mikel Artolak esaten duen bezala, aurten bera ia libururik gabe dagoela dio. Hori dela eta, bestelako ahozko ariketa

batzuk egiten ditu arbela digitalarekin: puntuak jarri, errimatzen duten hitzekin jardun... eta ia dena jolasen bitartez.

Hala ere, aipatzen du nahiz eta ia dena ahozko bideratzen saiatzen den, bertso zaharrak, doinuak eta abar jartzeko pantailan jartzen dituela eta ikasleekin batera abesten dituztela. Baina bestela, gehien bat ahozko dinamiken bitartez edo pantailan jarrita handik abiatutako ahozko dinamikak plataformak erabiliz egiten du lan.

Era honetan, azpimarratzen du, irakasle bakoitzak askatasun handiagoa duela bere taldeen arabera bere programazioak egiteko, bada, liburu bat eramaten denean, nahiz eta aukera eduki liburuan atzera eta aurrera ibiltzeko, jada bide bat markatuta dago; eta egun, hori ekidin nahi dute bakoitzak askatasun osoz egin dezan lan.

“Baina geroz ere sinpleago, material aldetik orain irekiagoa da. Bat-batekoan gehiago oinarritzen. Gero gainera, irakasle bakoitzak askatasun handiagoa du bere taldeen arabera bere programazioak egiteko. Azken finean, liburu bat eramaten duzunean, nahiz eta aukera eduki liburuan atzera eta aurrera ibiltzeko, jada bide bat markatuta dago. Eta kasu honetan (gaur egun) irekiagoa da. Orduan, nik nire talde guztiekin ez ditut lan berdinak egiten, noski. Alde horretatik askatasun gehiago daukat programatzerako garaian, ariketak sortzerako garaian edo erabiltzeko garaian ere.” (Aitor Mendiluze, 1.2 eranskina).

“Gu ere bertsoan”-en arrakasta

Azkenik, proiektuaren arrakastaren balorazioaren inguruan eman dute haien iritzia, eta biek diote “gu ere bertsoan” era arrakastatsu batean betetzen dela inolako zalantzarik gabe. Esaterako, Mikel Artolak dio arrakasta neurtzeko irizpide ezberdinak daudela; eta horietako bat, non honek arrakasta duen edo ez argiago definitzen duen puntu bat izan daitekeen, proiektuak dituen helburuak ea betetzen diren edo ez izango litzateke. Eta aurretik ikusi dugun bezala, bere iritziz betzen dira helburu hauek, beraz, proiektuak arrakasta duela esan daiteke.

Gainera, Aitor Mendiluzek nahiz Mikel Artolak aipatzen dute Nafarroan proiektu hau hasi zenetik, hau da, 1985etik, proiektua haziz joan dela eta hazkuntza hori ez dela geratu. Hazkuntza hori, gainera, ikastetxe ezberdinetatik eskari berriak iristen zaizkielako eta urtero proiektua eskatzen duten ikastetxe horiek berriro ematea eskatzen dutelako ematen da. Hori gutxi balitz, urtero ikasturte amaieran eskolek balorazio txosten bat aurkezten dute, non

balorazioa oso positiboa izaten den. Beraz, proiektuak arrakasta duela ez da soilik Mikel eta Aitorrek iritzi bat, errealitate bat ere bada.

Kontrastearen ondorioak

Marko teorikoan jasotako informazioa errealitatearekin alderatuz, ikusi daiteke zenbait alderditan bat egiten dutela. Hala ere, badaude beste alderdi batzuk non esaten denetik errealitara badagoen aldea, hau da, zenbaitetan errealitatea teoria bera baino zabalagoa da eta zenbait alderdi ez dira hain zehatzak eta mekanikoak.

Funtzionamendu eta helburuak

Hasteko, esan genezake funtzionamenduak eta helburuek bat egiten dutela teoriarekin gutxi gorabehera. Bada, nahiz eta funtzionamenduan ondoren gela bakoitzara egokitu behar diren irakasleak eta 5. eta 6. mailaz gain beste kurtso batzuetan ere eraman daitezkeen aurrera zenbait saio (nahiz eta ohikoena ez izan), gainontzekoa teorian esan bezala betetzen da.

Helburuei erreparatuz, aldiz, ikusi dezakegu ere helburu orokorrek bat egiten dutela nagusiki; eta batez ere, curriculumean aipatzen diren lau oinarritzko alderdi horietan egiten zaiela ikasleei ekarpen handia, hizkuntzan, katuran, musikan eta trebetasun sozial eta pertsonaletan hain zuzen ere.

Saioen egokitzapenak

Hala ere, nahiz eta teorian esaten den hau gutxi gorabehera eramaten den klasetara, ondoren, bertan, era ezberdinetan betetzen da honakoa. Hau da, esan bezala, errealitatea teoria baina zabalagoa da, eta errealitatean aurkitzen dituzten ikasle eta gela ezberdinetara egokitu behar dira irakasleak, bertan izan ditzaketan zailtasunak, aniztasuna, eremu linguistiko ezberdinak... kontuan hartuz.

Arrazoi hau dela medio, saio guztiak ez dira elkarrekiko berdinak eta klase bakoitzean gauza ezberdinak landu behar dira, gela bakoitzaren beharren arabera. Hori dela eta, ikasleengan ematen diren ekarpenak ez dira beti berdinak izaten.

Ekarpenak

Izan ere, egia da ikasleengan hizkuntzan, kulturean, musikan eta trebetasun pertsonal eta sozialetan zenbait ekarpen ematen direla, non horietako helburu batzuk, denentzako izango diren. Alabaina, badaude beste alderdi batzuk non denengan ez diren ekarpen berak egiten; adibidez, hizkuntzaren arloan, ez zaio ekarpen berdina egingo eremu linguistiko euskaldun edo erdaldun batean bizi den ikasle bati.

Gainera, ikasgai guztietan gertatzen den bezala eta Mikel Artolak eta Aitor Mendiluzek esaten duten bezala, ikasle denengan ez da ekarpen kopuru bera egiten eta ikasle guztiek ez dituzte trebetasun berdinak lortuko. Hau da, ikasle batek irakasleak botatakoaren %90arekin geratu daiteke eta beste ikasle bat %10arekin.

Materiala

Beste alde batetik, ikasgelan erabiltzen den materialaren inguruan, eboluzio handia izan duen alderdi bat da, beraz, ez da guztiz betetzen teorian aipatutakoarekin. Izan ere, urtez urte bat-batekora gehiago gerturatzen den metodologia horretara joan nahi dute, beraz, liburua nahiz eta traba bat ez izan honakoa lortzeko, beste baliabide egokiago batzuk daude manupulagarriagoak direnak.

Gainera, lehen aipatutakora bueltatzen gara; hau da, gela bakoitzak behar ezberdinak dituela dauzkan ezaugarriengatik. Hori dela eta, ez da logikoa material berdina erabiltzea adibidez Altzoko 15 ikasleko gela batentzat, edo Irunekeo 25 ikasleko gela batentzat.

Arrakasta

Azkenik, deigarria da teorian eta errealitatean batez ere bat egiten duen alderdia “gu ere bertsotan” proiektuak duen arrakasta dela, bada, honakoa, ukaezina da. Izan ere, urtero geroz eta ikastetxe gehiagok eskatzen du proiektu honen zerbitzua; eta proiektua abian egon den ikastetxe horiek, hurrengo urtera begira berritzeko eskatzen dute.

Ondorioak osotasunean

Beraz, ikusi izan dugun bezala, teoria errealitatearekin bat badoa zenbait alderditan; baina hala ere, errealitatea ondoren askoz zabalagoa da, gela eta ikasle ezberdinetara egokitu behar delako irakaslea. Positiboa da hori burutzeko baliabideak dituztela eta ikasle guztiengan ekarpen bat edo beste egiten dela, horrela, proiektuak duen arrakastara eramanez.

UNITATE DIDAKTIKOA

Irakasgaia: Euskara / Bertsolaritza

Gaia: Bat-bateko bertsolaritza

Maila: LH 5. eta 6. maila

Proposamenaren justifikazioa:

Errealitatea ikusirik eta Mikel Artola nahiz Aitor Mendiluzerekin hitz egin ondoren, jakin izan dut “gu ere bertsotan” proiektua etengabe berritzen doala. Gaur egun, proiektua pixkanaka bat-bateko bertsolaritzan oinarritu edo bideratu nahi dute, eta horretarako, urtez urte bat-batekotasunean oinarritzen diren zenbait ariketa, jarduera, eta abar prestatzen dituzte ondoren abian jartzeko.

Alabaina, nahiz eta Aitor Mendiluze bezalako irakasle batzuk bat-bateko bertsolaritzatik bideratzen dituzten gehien bat haien klaseak, badaude beste batzuk non oraindik idatzizkoari gehiegizko garrantzia ematen dioten. Esan bezala, Mikel Artolaren eskutik, proiektuaren metodologiaren ikerketarekin aritzen dela, honakoa aldatu nahi du eta ia soilik bat-batekoan oinarritzen den proiektu bat eraman nahi du aurrera.

Arrazoi hauek direla medio, soilik bat-batekoan oinarritzen den unitate didaktiko bat egitea erabaki dut, bada, Mikel Artolaren arabera, era honetan ikasleengan curriculumean azaltzen diren alderdi nahiz gaitasunetan ekarpen handiagoak egiten zaizkie.

Horretarako, Mikel Artolak eta Aitor Mendiluzek gomendatutako egitura bat jarraitu dut, non bat-bateko bertsolaritzako zenbait urrats erretetik zailera bideratzen dituzten ikasleek prozesu egoki bat izan dezaten. Hau da, errima jolasetatik abiatuz nola iritsi daitezkeen ikasleak bertsotan egitera.

Landuko diren Oinarrizko Kompetentziak:

A. Zeharkako kompetentziak

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia (jarduera guztietan).
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia (jarduera guztietan 1.an izan ezik).
- Elkarbizitzarako kompetentzia (3. jardueran).

- Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia (jarduera guztietan 1. jardueran izan ezik).
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia (4., 5., 6. eta 7. jardueretan).

B. Konpetentzia espezifikoak:

- Hizkuntza - eta literatura- komunikaziorako konpetentzia (jarduera guztietan).

Helburu didaktikoak

Helburu didaktiko hauek nik proposatutako helburuak dira, non egoera-proposamen honetarako zehazki egokitu ditudan; hori dela eta, ez daude curriculumetik aterata.

- Bertsolaritza ezagutaraztea.
- Bertsolaritzarekiko zaletasuna piztea.
- Euskararekiko jarrera positiboa indartzea.
- Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia (bereziki ahozkoasuna) garatzea.
- Bertsolaritza euskal kultutaren ikur garrantzitsu gisa balioestea.
- Bertsolaritzaren doinu esanguratsuenak jakitea eta haietara egokitzen jakitea.
- Jendaurreko emanaldi bat burutzeko oinarritzko betekizunak ezagutzea.

Edukiak

- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Norberaren gorputza erregulatzea.
- Norberaren emozioak erregulatzea.
- Norberaren alderdi kognitiboa erregulatzea.
- Informazioa antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea, ahozko testuak ekoiztea helburu hartuta.
- Ahozko testuen ekoizpen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.
- Ahozko testuen ulermen-prozesuan zenbait estrategia erabiltzea eta transferitzea.
- Ahozko modu proaktiboan eta konfiantza osoz aritzearen aldeko interesa izatea.
- Euskara bai eskolan eta bai gainerako gizarte-esparruetan erabiltzearen aldeko jarrera proaktiboa izatea.

Jardueren sekuentzia

A. Hasierako fasea:

1. Zer da bertsolaritza?

B. Garapen fasea:

2. Doinuak ezagutuz.

3. Errima jolasak.

4. Zirtoak.

5. Puntu eta koplak.

C. Aplikazio fasea:

6. Bat-bateko bertsolaritza.

D. Orokortzea eta Transferentzia:

7. Emanaldia / jaialdia.

Ebaluazioa Adierazleak:

Bertsolaritzan, lehen esan bezala, ahozko testuak igortzeaz jakiteaz gain, entzulearen paperak garrantzia handia du. Hori dela eta, alderdi hau ere baloratzekoa eta aintzat hartu beharrekoa da.

Harreman interpersoneletan, hedabideetan, hezkuntzan eta literaturan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testu soil-soilak sortzea norbaiten laguntzarekin, eta horretan, bai ikus-entzunezko teknologia berriak, bai IKTak eta bai hitzezko zein hitzik gabeko baliabideak txukun eta egoki erabiltzea.

- Gai da komunikazio-egoeraren ezaugarriak modu gidatuan aztertzeko: hartzailea, testuaren helburua...
- Komunikazio-egoera zein den kontuan hartuta, erabaki pertinenteak hartzen ditu: erregistro nahiz euskarri egokiak hautatzen ditu...
- Ahoskera garbia dauka.
- Gai da bere gorputz-jarrera eta keinuak behar beste kontrolatzeko.

Harreman interpersoneletan, hedabideetan eta hezkuntzan sarri-sarri agertu ohi direnen moduko euskarri eta genero desberdinetako ahozko testuak ulertzea (ikaslearen

bizipenetatik gertuen daudenak, batik bat), eta horretan, testuen zentzu orokorrari igartzea, ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak ondo bereiziz eta kasuan-kasuan lortu beharreko helburuak erdiesteko informazio pertinentea hautatuz.

- Gai da testuaren zentzu orokorra ulertzeko.
- Igartzen dio gaiari eta igorlearen asmoari.
- Gai da ideia nagusiak bereizteko.
- Badaki besteei aktiboki entzuten.
- Badaki besteei errespetu osoz entzuten.

Tresnak:

- Hasierako ebaluazioa: 1. jarduera.
- Prozesuaren ebaluazioa: 2., 3., 4., 5. eta 6. jarduerak.
- Amaierako ebaluazioa: 7 .jarduera.

1. JARDUERA. Zer da bertsolaritza?

Hurrengo saioetan landuko dugunaren inguruko aurreiritziak aipatuko ditugu eta horretarako zenbait galderaren inguruan solastuko dugu ere bai, non galdera hauek hausnarketara bideratuko duten. Horretarako, biribil batean elkar batera begira gaudela hitz egingo dugu honen inguruan.

- Zer da bertsolaritza?
- Zer da errima bat?
- Zer da doinu bat?
- Zer da neurri bat?
- Zer da bat-bateko bertsolaritza?
- Noiz eta zertarako erabili dezakegu?
- Gure kulturaren zer nolako garrantzia du bertsolaritzak?

2. JARDUERA. Doinuak ezagutuz.

Bertsolaritza munduan dauden doinu bereizgarri eta ospetsuenak ikasiko dira jarduera honetan, bada, euskal kulturako zati bat bereganatzeaz gain, ondoren ikasleek doinu hauen jakintzaren beharra izango dute. Izan ere, ondoren haiek sortuko dituzten puntuak, koplak,

bertsoak, etab., doinu hauetara egokitzen jakin beharko dute. Aipagarria da, zenbait doinuen lanketa egiteko salbuespenen bat egingo dela bat-batekotasunari begira.

- **Hitz ezkutua:** Arbela digitalean doinu bat eta haren letra jarriko da, adibidez, “Orioko balea”. Alabaina, zenbait hitz faltako dira, eta ikasleak adi egon beharko dira zein hitz falta den jakiteko. Hitz baten falta dagoenean, irakasleak doinua geratuko du ikasleek zein hitz falta den esan dezaten.

Adibidez:

Mila bederatziehun da _____ urtian

Maiatzaren hamalagarren egunian (GELDITU)

Orioko herriko barraren aurrian

Balia agertu zan beatzik _____ (GELDITU)

Haundia bazan ere _____ ibilian

Bueltaka han zebilen juan da etorian (GELDITU)

_____ arrotuaz murgil igerian

Zorriak zeuzkan eta haiek bota nahian (GELDITU)

- **3 errimetatik zein?:** Doinu bat bozgorailuetatik jarriko da, “ikusi nuenean” esaterako; baina azken errima esan aurretetik doinua geratu egingo du irakasleak. Orduan, ikasleei hiru errima aukera jarriko zaizkie, non horietako bat benetako errima edo errima zuzena izango den. Ikasle bakoitzak esan beharko du ea zein errima egokitzen zaien bertsoari momentu horretan, gehien asmatzen dituen ikaslea izango da txapelduna. Era honetan, jolas baten bitartez inplizituki doinu ezberdinen lanketa egingo dugu.

Ikusi nuenean

zure ile latza,

iruditu zitzaidan

sorginen _____ **erratza/behatza/ikatz**a (Adibide osoa 2. eranskinean)

- **Denen artean abestuz:** Esaterako, “ama begira zazu” doinua ikasteko, altuan jarriko da abestia, doinua denek entzun eta barneratu dezaten. Ondoren, ikasle bakoitzari, esaldi bat emango zaio momentuan hori ikasi dezan, eta honela, denen artean abestuko da abestia.

Adibidea:

- Lehen ikaslea: Ama begira zazu leihotik plazara
- Bigarren ikaslea: Ni bezalakorikan plazan ba ote da?
- Denak batera: Trailaralai plazan ba ote da? Trailaralai plazan ba ote da?
- Hirugarren ikaslea: Plaza ikus nezake gaztetxo betarik
- Laugarren ikaslea: Baina ez dago zure moduko besterik!
- Denak batera: Trailaralai moduko besterik! Trailaralai moduko besterik!

3. JARDUERA. Errima jolasak.

Errimen hiztegia aberasteko askoz, zenbait jolas egingo ditugu errimari bakarrik oinarritzen direnak. Errima jolasak:

- **Zerrenda jolasa:** Talde txikitan eta biribilean kokatuko dira ikasleak. Talde bakoitzari hitz bat esango zaio eta lehenengo pertsonak, hasierako hitz hori eta hitz horrekin errimatzen duen beste hitz bat esan beharko du. Bigarren pertsonak, berriz, hasierako hitza, lehenengo pertsonak esandako hitza eta hitz horrekin errimatzen duen beste hitz bat esan beharko du. Hirugarren pertsonak, hasierako hitza, lehenengo pertsonaren errima, bigarren pertsonaren errima eta bere errima... Horrela, hitz batekin errimatzen duten zerrenda luze bat sortuz.


Jolasa norbaitek A-S-T-O-A hitza lortzen duenean bukatzen da jolasa. Horretarako, norbaitek huts egiten duen bakoitzean hizki bat lortzen du, beraz, norbaitek 5 huts egitean jada 5 hizkiak lortzen ditu eta jolasa amaitzen da. Huts egiteak, ikasle batek zerrendaren ordena gaizki esatean edo 10 segunduren burura errimatzen ez duen beste hitz bat bururatzeko ez zaionean gertatzen da.

Adibidez:

- Hasierako hitza: mina
- Lehenengo ikaslea: mina, zikina

- Bigarren ikaslea: mina, zikina, berdina
- Hirugarren ikaslea: mina, zikina, berdina, ozpina
- Laugarren ikaslea: mina, zikina, berdina, ozpina, burdina...

- **Pistolaria:** Binaka “duelo” txikiak egiten joango gara; hau da, bikoteka jarriko dira ikasle guztiak, eta bikote bati hitz bat esango zaio. Hitz horren errima bat bilatzen duen bikoteko lehenengoak irabaziko du, horrela, azkartasuna sarituz. Horrela, “dueloa” pasatzen dutenek elkar lehiatzen joango dira, horrela, torneo antzeko bat osatuz.



- **Bonba:** Ikasle guztiak biribil batean jarriko dira eta bi talde osatuko dira, non talde bateko partaideak beste taldeko partaideekin tartekatuta egongo diren. Erdian, bitartean, minutuko bateko tenporizadore bat jarriko da. Irakasleak, bitartean, hitz bat esango du altuan, eta ikasle bati baloi bat emango dio. Baloia duen horrek, irakasleak esandako hitzarekin errimatzen duen beste hitz bat esan beharko du eta ondoko ikasleari pasa baloia, hark berdina egin dezan. Tenporizadorea amaitzen denean, baloia duen partaidearen taldeak galtzen du, beraz, beste taldeak eramaten du puntua.

Adibidea:

- Irakaslearen hitza: mina
- 1. taldeko 1. partaidea: zikina
- 2. taldeko 1. partaidea: berdina
- 1. taldeko 2. partaidea: ozpina
- 2. taldeko 2. partaidea: burdina
- ...
- 1. taldeko 6. partaidean tenporizadoreak jotzen du, 2 taldearentzat puntua.

4. JARDUERA. Zirtoak.

Zirtoak, neurririk eta doinurik gabeko esaldi errimatuak dira. Honen bidez, ikasleek errimatzeko aukera izango dute baina oraindik haien esaldi edo hitzak doinu batean zertan egokitu gabe.

- **Nor da bizkorrena?:** Ikasleek binaka jolastuko dute. Hala ere, hirugarren pertsona batek ere parte hartuko du (irakasle edo beste ikasle bat), non honen eginbeharra hitz bat esatea den. Ikasleak, txandaka, hirugarren pertsonak hitz bat esatean esaldi errimatu bat esan beharko du 5 segunduren buruan, bestela, aurkariak puntu bat jasoko du. Horrela, 5 puntutara iritsi arte.

Adibidea:

Hirugarren pertsonaren hitza: Kaixo

1. ikaslearen esaldia: Zu entzutean jarri naiz gaixo

Hirugarren pertsonaren hitza: Mina

2. ikaslearen esaldia: Arropa daukazu zikina

...

Hirugarren pertsonaren hitza: Liburu

2. ikasleak 5 segunduren buruan ez du ezer esaten, beraz, 1. ikaslearentzat puntua.

- **Nor da bizkorrena? 2.0:** Aurreko ariketaren berdina, baina hitzak aldatu ordez, denbora guztian hitz berdinarekin jarraituko da zirtoak egiten norbaitek huts egin arte.

Adibidea:

Hirugarren pertsonaren hitza: Mina

1. ikaslearen esaldia: Arropa daukazu zikina

2. ikaslearen esaldia: Bazkaltzeko zainzuriak eta ozpina

1. ikaslearen esaldia: Egunero beti berdina

2. ikaslearen esaldia: Nire giharrak dirudite burdina

...

2. ikasleak 5 segunduren buruan ez du ezer esaten, beraz, 1. ikaslearentzat puntua.

5. JARDUERA. Puntu eta koplak

Koplak, bi puntuko bertsoak dira, beraz, esan genezake bertso txiki batzuk direla. Era honetan, bertsoan egitera gerturatzeko joango dira ikasleak pixkanaka, eta jada, haien esaldiak doinu edo neurri batera egokitu behar dituzte.

- **Nor da nor?:** Beti egin izan den jolasa da. Hau da, ikasle batek beste baten aurka jolastuko du, non bakoitzak, famatu edo animalia baten zerrenda bat izango duen. Ikasle bakoitzak, zerrendako pertsonaia edo animalia bat hautatu beharko du besteak asma dezan; eta tartekatzen, galderak koplaka egiten joango dira, honela, pertsonaia edo animaliak deskartatzen joanez. Asmatzen



duen lehenengoak irabaziko du. Hala ere, puntua ondo burutu behar da, bada, ez bada honela egiten, haren txandak ez du kontatuko.

- **Baietz asmatu!:** Koplak bat botako duen ikasleak taulako animalia bat aukeratuko du. Koplak botatzean, aukeratutako animalia hori deskribatuko du, eta gainontzeko ikasleek zein animalia den asmatu beharko dute.



- **Gaidun koplak:** Bikoteka, ikasleei haien egunerokotasuneko gai/kasu eta pertsonaia batzuk ezarriko zaizkie. Horri egokituta, koplatan arituko dira bata bestea erantzuten.

Adibidez:

- Ikasle bat guraso bat izango da, eta bestea, seme-alaba bat. Seme-alabak dirua eskatu nahi dio gurasoari joku bat erosteko baina gurasoak ez dio eman nahi.
- Ikasle bat gela bateko ikasle bat izango da, eta bestea, irakasle bat. Irakasleak jolas-garaian ikaslea zigortu egin du etxeko lanak ez egiteagatik.

6. JARDUERA. Bat-bateko bertsolaritza

Jarduera hauetan zehar jada bertsotan egitea lortuko dute aurretik bereganatutako alderdiak abian jarritz.

- **Bertsoa zure esku!:** Ikasleei azken bi puntuak osatuak dauden bertso bat jarriko zaie; eta horrez gain, oin edo errima sorta bat emango zaizkie. Ikasleek, hortaz, ezaugarri edo baldintza horrekin bertso bat bat osatu beharko dute.

Adibidea:

- Bertsoaren amaiera:

Horrela dirudizu

zerri bat zikina

- Bertsoa ondorengo oin batzuekin osatu behar da: mina, berdina, ozpina, burdina, iskina
- **Nahitaezko hitzak:** Ikasleei hitz sorta bat emango zaie; esaterako, etxea, liburua eta bizkarra. Honekin, bertso bat osatu beharko dute non hitz horiek nahitaez sartu beharko dituzten bertsoan.
- **Zer da?:** Ikasleak, bertso baten bidez, zerbait deskribatu beharko du, baina, aldi berean, zenbait hitz ezingo ditu esan. Beraz, esatea debekatuta dauden hitz horiek

erabili gabe egin beharko du bertsoa, eta gainontzeko ikasleek asmatu beharko dute zer deskribatzen ari den.

Adibidea:

Deskribatu beharreko hitza: Hondartza

Debekatutako hitzak: Eguzkia, itsasoa, area eta edozein hondartzen izenak.

- **Gaidun bertsoak:** Koplatan egindako ariketa berbera, baina bertsotan. Hau da, bikoteka, ikasleei haien egunerokotasuneko gai edo kasu eta pertsonaia batzuk ezarriko zaizkie. Horri egokituta, bertsotan arituko dira bata bestea erantzuten.

Adibidez:

- Ikasle bat guraso bat izango da, eta bestea, seme-alaba bat. Seme-alabak dirua eskatu nahi dio gurasoari joku bat erosteko baina gurasoak ez dio eman nahi.
- Ikasle bat gela bateko ikasle bat izango da, eta bestea, irakasle bat. Irakasleak jolas-garaian ikaslea zigortu egin du etxeko lanak ez egiteagatik.

7. JARDUERA. Emanaldia / jaialdia.

Kurtso amaieran, ikastetxe eta guraso guztien aurrean emanaldi bat eramango da aurrera. Bertan, urtean zehar garatu eta eskuratutako gaitasun eta trebeziak erakutsiko dituzte ikasleek; izan ere, emanaldi honetan, bertsotan jardungo dira era ezberdinetan. Hau da, unitate didaktikoaren 5., 6. eta 7. jardueretan egindako ariketak eta erronkak burutuko dira.

MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lana nahiko biribila iruditzen zaidan arren, badaude hobetuak izan daitezkeen hainbait alderdi eta xehetasun, noski. Alabaina, batez ere nik bi alderditan somatu ditut muga handienak, teorian esaten dena errealitatearekin alderatzeko atalean eta nik diseinatutako unitate didaktikoan hain zuzen ere.

Izan ere, lehenik eta behin, teorian esaten dena errealitatearekin alderatzen dudanean bi elkarrizketa egiten ditut, bata Aitor Mendiluzerekin eta bestea Mikel Artolarekin; non oso zorteduna sentitzen naizen bi aditu hauek elkarrizketatu izanagatik. Hala ere, bertan badago faltan somatzen dudana alderdi bat, ikasgela batean ikasturtean zehar egoteko aukera izan ez izatea.

Hau da, azken finean, bi aditu hauek kontatzen dutena oso interesgarria eta balekoa da, bada, haiek dira urtez urte ikasleengan eboluzioa hoberen somatzen dutena. Baina esan bezala, ikasgela batean honakoa pertsonalki ikusteko aukera bota dut faltan; horrela, lehen eskutik ere ikusi ahal izateko ikasle ezberdinek toki ezberdinetan duten eboluzioa zer nolakoa den eta ekarpen ezberdinek nola eragiten dieten.

Bestalde, unitate didaktikoaren gaian, ia berdina bota dut faltan, hau da, ikasgela batean honakoa abian jartzeko aukera. Izan ere, egitura eta progresio aldetik nahiz eta jakin ondo dagoela, honakoa egiaztatzeke eta baieztatzeke era hobereana ikasgela batean abian jartzea izango litzateke nire iritziz.

Hala ere, ikusten den bezala, nahiz eta lanean zehar zenbait muga edo hobetzeko alderdi izan ditzakedan; esan bezala, burututako lana niri lan biribil bat iruditzen zait, non bat-bateko bertsolaritza eta hezkuntza era egoki batean lotu dudana, beraz, nahiz eta alderdi hauek hobetu daitezkeen, pozik nago burututako lanarekin.

BIBLIOGRAFIA

- Aizpurua, K., Altube, A., Arozena, E., Aurrekoetxea, I., Eizagirre, I., Estiballez A., Gurrutxaga, I., Iturrioz, J., Landeta, J., Leitzza, J., Lekue, E., Lotina, I., Ormaetxea, U., Perea, O., Salaberri, K., Sarasua, A., Urrea, N. eta Zabala, J. (2008). *Bertsolaritzaren Curriculumuma Lehen Hezkuntzan*. Oiartzun; Villabona: Lanku Bertso Zerbitzuak: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.
- Amuriza, X. (1995). Zu ere bertsolari. Donostia. Egin.
- Bertsozale Elkarte. (2021). https://www.bertsozale.eus/eu?set_language=eu
- Etxebarria, I., Kaltzakorta, J. (2009). Herri literatura. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2015). 236 Dekretua. *Oinarrizko Hezkuntzako Curriculumuma*. <https://irale.hezkuntza.net/documents/55483/1253878/Heziberri+2020+Oinarrizko+Hezkuntza++curriculum+osoa.pdf/064da273-0e61-c16a-9197-5bab01bab72a>
- Garzia, J., Sarasua, J., Egaña, A. (2001). Bat-bateko bertsolaritza. Donostia. Bertsolari liburuak.
- Kortazar, Jon (1997). Euskal literaturaren historia txikia. Donostia. Erein.
- Lekuona, J.M. (1982). Ahozko euskal literatura. Donostia. Erein.
- Paya, X. (2013). Ahozko euskal literaturaren antologia. Donostia. Etxepare Euskal Institutua
- Rodríguez, F. (1991). Bertsolaritza eta eskola. Bilbo. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Soraluze, E. (2020). *Bertsolaritza Ikastetxean*. Lanku Bertso Zerbitzuak: Euskal Herriko Bertsozale Elkarte.

ERANSKINAK

1. TRANSKRIPZIOAK

1.1 MIKEL ARTOLA:

- Zure iritzi pertsonala era oso labur batean. Zuretzako zer da bertsolaritza? Zertan ezberdintzen da beste ahozko literatura batzuetatik? Zein da bere balioa? Zure ustez zein ekarpen egiten dio bertsolaritzak euskal munduari?

Bueno, bertsolaritzak zerbait berezia baldin badu da bat-batekoa dela, orduan, bere inprobisazio izaera horretan bereizten du beste genero batzuetatik. Egia da idatzizko bertsolaritza ere existitzen dela, baina printzipioz bertsoari deitzen zaio bat-batean egiten dunari, hori Joseba Garziak etab-ek teorizatu zuten.

Hortaz aparte, literatura idatzia eta ahozko literatura daude, eta ahozkoan sartzen da bertsolaritza, baina han badaude zalantzak zenbateraino ahozko literaturak ez al duen zaku handiegia osatzen. Orduan, bertsolaritza erretorika generotzat hartzen dute autore batzuk: Joseba Garziak, etab-ek *bat-bateko bertsolaritza* liburuan.

Gero ere, esan behar da munduan ahozko kantu inprobisatu gehiago ere existitzen direla eta ba han daude kubatarrak, mexikarrak, rap-a... Munduan zehar suposatzen da, eta hau Diaz Pimientak etab-ek esaten dute, eta mintzolan ahozkotasanaren mapa bat ere badago, eta hor azaltzen dira mundu mailan zenbat lekutan egiten diren bapateko inprobisazioak.

Kokapen hori eginda, euskal kulturaren garrantzia dextente daukan genero bat dela bertsolaritza eta hor dauka batetik, kultur sormen aldetik ematen dion ekarpena, ba edozein beste sormen esparruek ematen dioten bera, ba mundua ikusteko eta abar, baina gero bestetik, ba nola euskararen komunitatea, komunitate zaurgarria edo izango litzateken, ba nik uste dut honelako antelaketa eredu bat egotea, ba Bertsozale Elkartearen bezala, gainera, jardun arrakastatsu bat izatera mundu txiki horretan oso inportantea dela euskararen biziberritzerako eta indarberritzeko eta abar. Esango genuke euskal kulturaren biziraupen bizi baterako, ez iraupen hutsa, baizik sortzetik.

- Nola funtzionatzen du benetan “gu ere bertsotan” proiektuak?

Teorian jartzen du Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan lantzen dela, eta bertan, bertsolaritza saioak ematen dira ikasturte osoan zehar, hamabostean behin ordubetez euskara ikasgaiaren barruan. Tutorea ere gelan egon ohi da ere eta era honetan, bi irakasleen artean aukera dute ikasturtean zehar egingo diren ekimenak adosteko eta proiektua ikasgelara egokitzeko.

Azalpenetik, hau da, bertsolaritzako curriculumean adierazten den teoriatik errealitatera ba al dago saltorik? Edo zehatz mehatz betetzen da hau?

Bai, betetzen da, horrelaxe da, orain dauzkagu 53 irakasle eta 28.500 ikasle inguru Euskal Herrian zehar, probintzia guztietan, zazpitan, hori betetzen da. Gero beste kontu bat da gelan nola lantzen den, eta lehen esan badizut bertsolaritza bat-batekoa dela eta horrek bereizten duela, galderetako bat izan liteke ea gero gelan benetan bat-batean lantzen den, idatziz lantzen den, edo nola egiten den, ez?

Pixka bat hori ikertzen ari naiz eta pixka bat ondorioa da urte luzetan idatziz lehenengo egiten zela eta gero bat-batean, eta ematen zuela lehenbizi idatziz ikasi behar zenuela gero bat-batean egin ahal izateko. Orain azken aldi bestelako proba batzuk egiten ari gara eta benetan bertsolaritza den hori gelara eramaten da. Ez nuke esango arrakalari dagoenik teorian esaten denetik praktikara, nik uste dut egiten dela.

- Zeintzuk dira “gu ere bertsotan” proiektuaren helburu nagusiak? Betetzen al dira helburu hauek?

Bueno, helburu nagusiak... Badago, batetik, bertsolaritzaren oinarriko ezagutza ikasle guztiek izatea. Gero, bestetik dago, zaletzea, ezagutzarekin bat etorriko litzatekena edo nahi duenak gero bertso eskolan jarraitu dezan, edo zaletasun bat piztea edo saiatzea.

Gero dago, euskararekiko jarrera positiboa izatea eta horretan laguntzea. Orduan ba, suposatzen da bertsolaritzak motibazioa pizten diela euskarara gerturatzeko. Eta gero, badago ere kompetentzien aldetik, komunikazio gaitasuna lantzea; eta horrekin batera curriculum (Bertsolaritzaren Curriculum) daukagu, eta curriculum horretan baita ere agertzen da: musikarako kompetentzia, kultura eta trebetasun sozial eta pertsonalak lantzea. Horiek dira pixka bat helburu orokorrak.

Eta gero lortzen den edo ez? Bueno, printzipioz eskoletatik jasotzen dugun feedback-a oso positiboa izaten da, baina ondoen geuk dakigu, irakasle zabiltzanean ikusten duzuna. Eta

esango nuke, lortzen dela baina zer hobetua ere badagoela. Hau agian ez dugu konpartitzen den-denok, baina pixka bat hortan nabil eta nik uste dut oraindik ere hobetzeko tartea ere badaukagula.

Ba zertan? Bueno, ba nik uste dut bat-bateko bertsolaritza gelara eramatean idatziz egiten baduzu, bat-batekoak dauzkan ezaugarri batzuk galtzeak... Jada, ezberdintzen duela bertsolari baten esperentziatik. Esan nahi dut, zuk egiten baduzu bertso bat idatziz lagun baten urtebetetzea delako eta hori kantatzen baduzu, edo kantatzen baduzu bat-batean sortua eta idatzi gabe besteen aurrean, ez da sentsazio bera izaten eta ez da bizipen bera izaten. Orduan, hipotesia izango litzateke bigarren hau egiten bada, lortzen direla helburuak bestearekin (idatzizkoarekin) baina gehiago.

- Bueno, eta aipatu didazu curriculumaren inguruan daudela batez ere lau alderdi, direla: hizkuntza, kultura, musika eta trebetasun sozial eta pertsonalak. Orduan, hasteko, zein ekarpen egiten zaizkio ikasleari hizkuntza aldetik?
Eta hori nola ikusten duzue hori? Nola gauzatzen da? Nola ebaluatzen duzue?
Hau da, ikusiz? Edo ikusten duzue hitz/aditz zehatz berri batzuk erabiltzen dituztela?

Bueno, ez da errexu guretzako irakasle bakoitzak agian 700 ikasle dauzkalako. Orduan, ezinezkoa da ebaluatzea banaka. Baina bueno han badaude alderdi ezberdinak hizkuntzaren ikuspegitik. Lehenengoa motibazioa da, galdera da ea nahiko motibazioa sortzen duen bertsolaritzak ikasle horiek euskaraz egiteko gogoia izan dezaten behintzat momentu hortan. Ikusten dugu orokorrean, esan genezakeela baietz, motibazio hori existitzen dela eta “engantxatzen” direla.

Gero izango litzateke gaitasunarena, eta gaitasunaren ikuspegitik, hor jada gaitasun ezberdineko ikasleak dauzkagu. Orduan, badaukagu eremu soziolinguistiko oso euskalduneko ikasleak eta dauzkagu justu kontrako eremukoak. Lehenengoan, esate baterako, ikusten duzu beraientzako dela hizkuntza fintzeko oso tresna ona, eta beraiek esan nahi duten hori esateko bilatzen dituzte hitzak. Eta gero, daukazu gainera aukera bertsolaritzan zuk nahi duzun gaia jartzen badiezu, zuk nahi dituzun errimatzen duten hitzak edo oina jartzen badizkiozu, derrigortzen duzu ikaslea horiekin egin dezan. Orduan hor dago koxka.

Gero, eremu erdaldun hauetan ere, esan dizudan azkeneko hau ere berdin gertatzen da baina zailtasun gehiago dute hiztegiagatik. Orduan, guk geuk ere, bertsotan gabiltzanok, probatzen badugu beste hizkuntza batean berdina egitea, konturatzen zara mekanismoa

ezagutzen duzula baina kostatzen zaizula bilatzea nahi dituzun hitzak. Eta neurrian sartzeko ere, esaldiak luzatu eta moztu egin behar dituzu, eta horrek ere eskatzen hizkuntzaren ezagutza dexentea.

Dena dela, momentuan ikusten dugu (ebaluatzearen inguruan). Batez ere intuizioz eta gelan egoten den tutorearen ebaluazioaren arabera ibiltzen gara. Kontuan hartu behar da 15/16 aldiz joaten garela urtean eta gehienez ere bi urtetan, agian batzutan hiru urtetan, baina normalean bi; orduan guztira 32 klase dira egoten garenak. Orduan 32 klasetan pertsona bati hizketan ezin diozu beste munduko ebaluaziorik egin. 32 ordu dira eta klase bakoitzean gainera 25-26 ikasle, orduan ezin da. Baina tresna bezala, baldin eta baliatuko balitz egunero, edo Lehen Hezkuntza guztian emango balitz, nik uste dut, eragin dexentea izango lukela. Eta azpimarratzekoa iruditzen zait, ez duela bakarrik gaitasunean eragiten, baizik motibazioan ere.

- Zein ekarpen egiten zaizkio ikasleari kultura aldetik?

Kultura aldetik esango nuke nabarmenagoa edo ikusten errazagoa dela. Edo ebaluatzen. Batetik, bertsolaritza beraren ezagutza, hau da, bertsolaritza existitzen dela, hori ez dakite leku batzuetan.

- Noski, pentsatzen dut eremu euskaldun eta erdaldun batean kultura aldetik egiten zaien ekarpena ezberdina izango dela

Hori da. Eremu euskaldun batean, adibidez, joaten bazara Alzora, han badakite bertsolaritza zer den, entzun izan dute noizbait... Joaten bazara Irunera esate baterako eta han segun zein eskoletan edo zein geletan behintzat ez dakite ez existitzen denik (bertsolaritza), ez ezer. Orduan, bigarrenengo kasu honetan izango litzateke bertsolaritza existitzen dela, gero, bertsolaritzan ari diren pertsona ezagunenak zeintzuk diren ere bai; ba Maialen Lujanbio nor da, Amets Arzallus nor da, Andoni Egaña nor da, Onintza Enbeitia nor da... Gero dago bertsorik ezagunenak ere ezagutzea, ba ez dakit... ez dugu denetan berdin egiten baina "Pasaiako plazatik", "Orioko balea"... holako gauzak, ez? Gainera, konturatzen gara, lehen joaten ginenean ezagutzen zituztela eta orain ez. Eta hor dago ikertzeko lerro handi bat ea eskoletan kulturgintzaren transmisioa nola egiten ari diren.

Eta gero, bertsolaritzaz gain, askotan agertzen dira bestelako musika taldeak, edo idazleren bat... Ez da bertsolaritza bakarrik, askotan agertzen diren pertsonak beste eremu batekoak dira. Normalean, musika, idazleak... pixka bat hor mugitzen gara. Eta hor dago, kulturaren

transmisioaren ekarpena. Eta ondoren zuk egiten baduzu bertsotan, sartzen zara kulturean, baina jada ez da azaltzen dizutela bertsolaritza zer den, baizik eta zuk, zerorrek, bizi izan dezula, eta hori askoz interesgarriagoa zaigu azalpen “txapa” bat baino.

- Zein ekarpen egiten zaizkio ikasleari musika aldetik?

Guri gertatzen zaiguna da, gutako asko filologoak edo hizkuntzatik gertu xamar gabiltzan jendea garela. Eta guretzako ere errazagoa dela ikusten hizkuntzaren gaia. Horrek ez du esan nahi musikan ez denik egiten (ekarpenik), eta gainera, esate baterako, katalanak, Albert Casals, dago ikerlari bat, 2009an tesia egin zuen kantu inprobisatuaren didaktikaren inguruan; eta haiek abiatzen dira musikatik, orduan musikako adituan dira eta hortik sartzen dute inprobisazioa. Eta gu berriz, gehiago hizkuntzatik. Orduan bueno, norbere formazioak ere asko esan nahi du.

Eta gero, badago neska bat, orain egiten ari dena ikerketa bat kantaerari buruz, eta esaten du bertsotan ikasterako garaian musikak zein eragin duen. Eta ikusten eragina duela eta handiago izan dezakeela. Batetik, neurrian sartzeko bertsotan ez dituzulako silabak kontatzen eta belarriz egiten duzulako, erritmoarekin oso lotuta dago, orduan han badago ekarpen bat. Gero, bestetik, doinuak ikasten direlako, doinuak behar dituzu eta orduan euskal kulturean dauden doinu horiek bereganatzen dituzte. Eta gero, bakarrik jakin behar duzu kantatzen, ez taldean; zuk bakarrik eta besteen aurrean, orduan hor badago baita ere ekarpen bat. Nik gutxi gorabehera horiek azpimarratuko nituzke.

- Noski, eta bertan sartzen dira trebetasun sozial eta pertsonalak, ez? Azkenean, gainontzekoen aurrean kantatu behar izateak horretara eramaten zaitu, beraz, han ere ekarpena badago

Hau da agian azken aldiaren konturatzen ari garen gauzarik garrantzitsuenetarikoa. Iruditzen zaigu hemen dagoela gure ekarpenik inportanteenetako bat trebetasun sozial eta pertsonaletan; besteen aurrean jarri ahal izateko zure buruarekin konfidantza bat behar duzulako. Batetik, zer kantatu, zer ez; barre egingo didate, ez didate egingo. Gainera, adin horietan egoten dira... Zu joaten zarenerako ba gelan arazoak daude edo edozer gauza, ez? Orduan beraiek ausartu egin behar dira. Hor badago lerro inportante bat. Hori trebetasun pertsonaletan.

Trebetasun sozialetan ere, iruditzen zaigu bertsolaritza izan daitekeela inklusiorako tresna garrantzitsu bat, ba antzerkia, etab. ere izan daitezkeen bezala e! Baina bertsolaritza ere bai.

Ze bertso saioak normalean, esan liteke direla, ekitaldi integratzaileak. Entzulea derrigorrezkoa da, entzulerik gabe ez dago bertso saiorik; eta gainera bat-batean ari denez bertsolaria entzuleak eragin handia du bertsolariarengan, eta hori pertzibitzen du entzuleak. Entzulea sentitzen da saioaren parte. Orduan, ikasleekin ikusten dugu hori ere bai gertatu daitekeela eta kohesio giro bat sortu dezakeela. Eta hor badago, esan berri ditudan alor hauetan, ekarpen interesgarri bat.

- Eta ikasle guztiengan ematen dira ekarpen hauek?

Asko esatea litzateke. Nik, iritzi pertsonal bezala esango nizuke, neurri kontua dela. Batzuegan beteko da %100ean eta beste batzuegan %10ean. Ez dakit, ez nintzateke ausartuko esatera denengan egiten dugunik ekarpen guzti hori. Nik uste dut hala ere, hurbiltzen hasiak gaudela. Egia da, kurtso amaieran besteen aurrean kantatzeko jaialdi bat egiten dela, eta hor denek kantatzen dute; orduan, minimo bat edo zerbait lortu dala seguru. Baina gero, lau esparru horietan esatea dena bete dela dextente da. Baina bueno, beste gauzetan bezala, ez dut uste matematiketan hobetu dabilzanik...

- Bueno, bestalde, badaukazue “gu ere bertsoan” proiektua aurrera eramateko material bat, material hori baliagarria suertatzen ziazue ondoren errealitatean? Edo zein material erabiltzen duzue?

Bueno, bai, materiala dena den asko aldatzen ari da; eta batez ere aldatzen ari da berrikuntza prozesuagatik, gabilta bat-batekoa gehiago sartzen eta orduan materiala ere aldatzen ari gara. Orain arte liburuan oinarritu izan da materiala, eta orain gabilta aldatzen. Batetik, material digitala sortu dugulako, bertsoikasgela. eus, han dago, eta bestetik, bat-batean egiteko fitxak, oinak azaltzen direla... Horrelako gauzak. Eta pixka bat materiala esango genuke, material kaxa batera hurbiltzen goazela liburutik aparte. Hua da, liburuan egotetik ari gara liburutik askatzen, beste material mota bat egiten, manipulagarriagoa dena, eskuekin eta mugimendua eskatzen duela gelan, kokapen ezberdinak, jolaserako aukera ematen duena.

Eta bai, materiala beharrezkoa da; materialik gabe ezin dugu egin. Baina, esango nuke libururik gabe egin dezakegula, gainera, honela egiten dute toki batzuetan; eta esango nuke liburuari erabat jarraitzeak kalte egiten duela. Bestelako material bat osatzera eraman gaitu horrek eta horretan gabilta.

- Bueno, eta bukatzeko eta itxiera emateko jada elkarrizketari; esango zenuke era arrakastatsu batean betetzen dela “gu ere bertsoan” proiektua?

Bai, hori guztiz esango nizuke. Arrakasta neurtzeko ere irizpide ezberdinak daude; batetik, helburuak lortzen diren edo ez, lehen esan dugun hori, nik esan dizut baietz, nahiz eta %100ean benetan ala ez den izango. Eta gero dago “gu ere bertsoan” proiektuaren oinarria, dela eskatu egiten digutela. Orduan, guk ere Bertsozale Elkartetik badaukagu borondatea hezkuntzan egoteko, baina normalean ikastetxeetatik etortzen zaigu eskaria. Orduan, ikastetxeek eta udalek ordaintzen dute, eta eskari hori hasi zenetik proiektua, haziz, haziz, hazizkoan da, inoiz ez da geratu 85etik edo horrela (1985etik), Nafarroan hasi zirenetik. Orduan, gero eta gehiagora joan den hortan, esango nuke baietz, arrakasta baduela eta gainera esango nuke ere oraindik gehiago izan dezakeela.

1.2 AITOR MENDILUZE

- Zure iritzi pertsonala era oso labur batean. Zuretzako zer da bertsoaritzak? Zertan ezberdintzen da beste ahozko literatura batzuegatik? Zein da bere balioa? Zure ustez zein ekarpen egiten dio bertsoaritzak euskal munduari?

Bertsoaritzak niretzako bizitzeko modu bat da azken finean, nik ume-umetatik daramat honetan eta bizitzeko modu bat, ezta? Baina orokorrean hartuta esango nuke gure kulturaren bereizgarrietako bat dela, munduko beste leku gehienetan baina askoz indartsuagoa delako hemen, eta horrek berezitasun bat edo pisu espezifiko handi bat ematen dio.

Gero, zer da? Da... espresabide bat; da... mundu erreferentzial ezberdin bat; da... herrigintza modu ezberdin bat, ze azken finean bertsoaria oso eremu, oso leku, oso eszenatoki ezberdinetan, oso publiko ezberdinarekin aritzen da. Seguruenik ere publikorik ezberdinenarekin ere aritzen den espresabideetako bat izango da, eta oso jarraian egon gaitzeko gainera gaur adineko jendearekin Nafarroako herri txiki batean eta bihar Bilboko gaztetxe batean... Eta alde horretatiuk, bueno, espresabide berezi bat eta mundu erreferentzial ezberdin bat.

Eta kulturaren barruan esango nuke, gure herriaren kulturaren barruan badela batetik, hori, lehenago esaten nuena, pisu espezifiko handi bat du besteekiko konparatuz, baina barruan

ere, gure kulturaren barruan ere esango nuke azkeneko urteotan eremu berriak konkistatu dituen jardun bat dela bere oinarritzko eremu horri uko egin gabe. Eta beraz, oso kulturbide bizia momentu honetan, oso presente dagoena gizartean, oso anitza eta gero eta gehiago, oso desberdina, geroz eta jende gehiagora iristen dena; eta bueno, erreferentzia interesgarri bat, ez bakarra eta ez inor baina hobea, baina bai interesgarria alde horretatik, bere burua berrasmatzen jakin duelako batez ere.

- Nola funtzionatzen du benetan “gu ere bertsotan” proiektuak?

Teorian jartzen du Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan lantzen dela, eta bertan, bertsolaritza saioak ematen dira ikasturte osoan zehar, hamabostean behin ordubetez euskara ikasgaiaren barruan. Tutorea ere gelan egon ohi da ere eta era honetan, bi irakasleen artean aukera dute ikasturtean zehar egingo diren ekimenak adosteko eta proiektua ikasgelara egokitzeko.

Azalpenetik, hau da, bertsolaritzako curriculumean adierazten den teoriatik errealitatera ba al dago saltorik? Edo zehatz mehatz betetzen da hau?

Nik esango nuke errealitatea edo aplikazioa teoria bera baino zabalagoa dela, esan nahi dut, oso egoera ezberdinetara egokitzen gara, oso ikasmaila, euskara maila, jardun maila ezberdinetara eta hor, askotan, irakaslearen arteko lankidetzak ere aldatu egiten da taldearen arabera. Talde batzuetan nik bakarrik eman dezaket saio osoa inongo arazorik gabe, beste batzuetan irakaslearen pisua handiagoa da eta parte-hartzea handiagoa da. Baina honela, gainbegiratu batean esango nuke definizio ona dela. Egia da, ba maila aldetik bost eta seirako planteatu bagenuen ere, ez dela bost eta sein bakarrik lantzen; hemen adibidez eskola batzuetan lau eta bosten lantzen dut (Donostian), Debagoiena aldean ere hirugarren mailan lantzen da, lekuren batean DBH-n ere bai... baina bueno, oinarrian hori bai. Eta gainontzean bai, nahiko azalpen zehatza da.

- Zeintzuk dira “gu ere bertsotan” proiektuaren helburu nagusiak? Betetzen al dira helburu hauek?

Bueno, helburu ezberdinak dauden arren, helburuen ordenamentua da gakoa. Bat da bertsolaritza ezagutaraztea, noski; euskeraren gaitasunean eragitea, ahozko gaitasunean eragitea, jendeurrekotasunean, trebetasun pertsonaletan... Nahiz eta oso fokalizatua egon

jardun batean, jardun horrek hainbat elementu garatzeko aukera ematen digu, eta ikasleen adin tarte horretan nik uste dut oso elementu garrantzitsuak direla.

Hirugarren zikloko ikasleekin, jende aurrean jartzen ikastea adibidez, nire ustez oso garrantzitsua da eta oso adin tarte interesgarria horretarako. Txikiagoek ez dute konplexurik. Eta handik gorakoan agian konplexuak garatuegiak dituzte eta hor bada garai bat non tresna horiek ematea izugarri garrantzitsua den, ez bertotarako, baizik eta haien garapen pertsonalerako.

Euskara gaitasunean, gaitasunean bezain beste edo batzuetan gehiago, euskararekiko atxikimendu pertsonal bat lantzen da, ezta? Gelan euskara ikasgai bat izatetik, elementu ludiko bat izatera pasatu daiteke eta ikasleek ondo pasatzen dute abesten, sortzen, asmatzen... eta horrek euskararekiko beste jarrera bat sortzen edo garatzen die. Niri gertatu zait adibidez, eskola batzuetara lehenengo aldiz joan naizenean, oso kontrako jarrera izatea ikasle askok eta etxetik zekartzatenak, eta ba aitak esaten du hau kaka bat dela... eta holako gauzak. Baina, handik hiru-lau urtetara ia eskola horretan ez dut jarrera hori aurkitzen, askok bere anaia-arreba zaharragoak kusi dituztelako, haien erreferentzia dutelako... eta jada jarrera hori aldatu da. Batzuei gehiago, beste batzuei gutxiago, baina gutxienez beste errespetu bat, batzuek irrika puntu bat ere probatzeko zer den... Orduan horrek esan nahi du sortzen dela beste ikuspegi edo ikusmolde bat euskara berari begiratzeko garaian.

Eta gero noski, ba ikasleentzako ahozko adierazpenean eragiten diela, bere hizkuntza gaitasunean orokorrean; eta beharbada, batzutan ere baita, hizkuntzaren alde informalena lantzeko bide bat dela. Esan nahi dut, gure ikasle askok, euskara maila dute, bueno, mugatuagoa, ez mugatuagoa... baina bueno, bere mugekin; eta mailarik onena dute euskara formalean, eskolako lanak egiteko erabiltzen den horretan. Baina zirikatze, adarra jotzeko edo gurasoei buruz kezatzeko ez dute baliabiderik, eta hor, azken finean sortzen ari gara beraiekin oso gertuko gaiak. Eta deskubritzen dute gai direla, nahi dituzten gauza horiek ere beste modu batean esateko eta, bueno, ba hor ere irekitzen zaie beste mundu bat, beste aukera bat.

- Zein ekarpen egiten zaizkio ikasleari hizkuntza aldetik?

Eta hori nola ikusten duzue hori? Nola gauzatzen da? Nola ebaluatzen duzue?

Hau da, ikusiz? Edo ikusten duzue hitz/aditz zehatz berri batzuk erabiltzen dituztela?

Aurten batez ere, bueno, azkeneko hiru-lau urte hauetan jada bat-batekora bideratu dugun honetan, askoz ere nabarmenagoa da ezberdintasuna. Esan nahi dut, paperean denean askoz denbora gehiago izateaz aparte, hizkuntza ezberdin bat erabiltzen dute eta erabiltzen dugu denok. Ahozko honetan, gertatzen zaiena da, momentu batetik aurrera autozuzentzen hasten direla. Esan nahi dut, nik beti esaten diet, bertso bat abesten baduzue ondo dago, gaizki egonda ere ondo dago, abesteagatik bakarrik. Baina konturatzen zara akats nabarmenak egiten dituztela, edo gabeziak dituztela gauzak esaterako garaian... Baina ikasturtean aurrera egin ahala, konturatzen zara beraiek akats horiek zuzentzeko gai direla, normalean sartuko ez lituzketen hitzak, makuluak, esamoldeak sartzen dituzte, esan nahi duten hori esatea lortzeko eta doinura egokitzeko, eta behar bezala. Orduan horrek esan nahi du beraien hiztegia garatzen ari direla, baina baita hiztegi horrekiko nolabaiteko sen bat. Behar dituzten hitz horiek errazago ekartzeko gaitasun bat.

Eta gero, gaien aldetik, oso gertuko gaiak badira, batzuetan zirikatzekeo gaiak etab., konturatzen zara beraien hiztegia ere hobetzen joaten dela. Batek esandakotik, bestetik esandakotik... jasotzen joaten dira poliki-poliki; eta bueno, oso prozesu polita izaten da, ze askotan gertatzen da gelan bertan, saio bakarrean, batek botatzen duenean besteei gustatzen zaien esaldi bat, edo esamolde bat, edo hitz bat... besteek hartu egiten dutela segituan eta erabiltzen hasten dira. Orduan, joaten dira besteen baliabideetaz jabetzen. Eta hori jolas bate barruan gertatzen da, esan nahi dut, ez da apuntatzen joaten direlako, edo ez da gauza arautu bat... Orduan nik esango nuke, gaitasunaren eboluzio hori honelako gauzetan jasotzen dela.

Egia da, gu ere hamabostean behin joanda, gure pertzeptzioa ere neurri batean mugatua dela. Baina gero, eskolako edo gelako irakaslearekin ere baloratzen dugu ea nola ikusten duten beraiek (ikasleak), eta beti esaten dute tontakeria bat badirudi ere, askotan patiora irtetzerako garaian lehenengo bi esaldiak euskaraz egiten dituztela; lehen ez zutena, bada zerbait. Gero, gaztelaniaz hasiko dira beharbada, edo ez; baina irteerako horretan, ba honelako gauzak ikusten dira. Edo zuregana zuzentzen direnean, askotan ikasturte hasieran esaten dizutena eta ikasturte bukaeran esaten dizutena, ez dizute berdin esaten. Konfiantzak ere eragiten du, baina konfiantza horren bila, nolabait zirikatzaileagoak izan nahi badute, ironikoagoak izan nahi badute... tresna batzuk bereganatu dituzte. Eta bueno, ba horrek ere ematen du beraien ekarpen horren isla bat, ezta? Orduan, ez da gauza bat kuantifikagarria, ez da kontrol edo test batean agertuko litzatekeen gauza bat, baina kualitatiboki nik uste dut jabetzen garela, bai tutoreak eta bai gu ere, pixka bat gela horren edo ikasle horien eboluzioaz.

- Eta kulturalki nola egiten duzue ekarpen hori?

Kulturari dagokionez, guk batez ere lantzen duguna da bertsolaritzaren kultura edo eremua, izan liteke bertsolari batzuk ezagutzea, bertso sorta batzuk ezagutzea... ba bueno, ariketa ezberdinen bitartez eta ikasturtean zehar erabiltzen ditugun ereduaren bitartez, saiatzen garena da beraiei pixka bat gure mundu erreferentzial horren argazki bat behintzat egiten. Noski, bere mugekin, ez daukagu gehiegi sakontzerik; baina gutxienez bertsolari batzuk ezagutu ditzatela, bertsolaritzaren garapen historikoaren zertzelada batzuk.

Ba hori, ni orain jaialditxo batzuk egiten ari naizen honetan, 10 bertsolari historiko, garai ezberdinetakoak landu ditut beraiekin... Aukera eman diet bertsolari bat aukeratzeko eta haren sorta bat kantatzeko jaialditxo horretan... orduan, bueno, horrelako gauzak egiten joaten gara. Eta gero noski, agertzen diren adibide, bertso, doinu... guztietan ba, haren azalpen bat, haren kokapen bat egin, eta abar. Eta han joaten dira ba kultura hori jasotzen.

Esango nuke kulturalki, ematen zaiena baino gehiago pizten zaien jakinmina ere badagoela. Hori ere ekarpen handi bat da. Bertsolari batzuk ezagutu ahala, ba bueno, zerbaitek arreta ematen die, “ba Lazkao Txiki horrela eta horrela ibiltzen zen...”, edo “Txirritari ez daki zer gertatu zitzaien...”, edo hemen Donostian ba “Bilintxek izan zuen zorte txarra...”. Eta hori lantzen duzunean, eta haren bertsoren bat, ba askori pizten zaie honelako galdera ikur txiki bat behintzat, ezta? Eta bueno, ba bilatzen dute, aldiz, batzuk eskatzen dizute “aizu, ekarri beste bertsolari gehiago” eta honelako gauzak. Orduan nolabait, kulturaren arloa bertsolaritzari dagokionez pixka bat horrela begiratzen dugu.

- Eta musika aldetik pentsatzen dut berdina izango dela, ez? Egiten zaion ekarpena ikasleari zenbait doinu barneratzea izango direla, ezagutza hori...

Bai, bueno, musika aldetik bi arlo daude. Batetik, esango nuke doinua beraiek ezagutzea, azkenean doinu batzuk ikasten ditugu, abesten ditugu eta gero erabiltzen ditugu... Baina gero ere dago testuaren musikalidadearen lanketa; esan nahi dut, asmatu behar duten testu hori doinu baten gainean abestu behar dute. Orduan, hitzen musikalidadea, metrika eta gauza horiek... adibidez, metrika silabikoa nik jada, ez diet erakusten, metrika musikala erakusten diet. Ez dute silabarik kontatu behar baiuzik eta doinura egokitu behar dute. Orduan, doinuaren eta testuaren arteko lotura horiek, eta hori azkenean musikaren lanketa bat da baita ere, hortan, indar handia jartzen dugu. Hori esango nuke ikasturte osoan zehar lantzen dugula eta gaur egunean batez ere bat-batekoan, inprobisaziokoan, ba bueno, beti

lantzen dugu eta esaten dugu doinuarekin inprobisatu behar dela. Inoiz ez silabekin, inoiz ez... beti doinuarekin. Orduan musikaren lanketa, hor ere badago.

Askotan gertatzen da musika ez direla notak, musika erritmo bat ere izan daiteke. Bere garaian adibidez ariketa batzuk landu genituen, ba pausajearekin inprobisatzea eta honelako gauzak; ba hitzak botatzea pausuen erritmora... hori, bertsoaren sorkuntzarekin oso lotuta dago. Orduan, musikalitate oinarrizko hori ere lantzen dugu lan-tresna bezala, gainera. Gero beraiek hori, baliatu dezaten beraien bertsoak inprobisatzeko.

Orduan bi parte daude, parte bat izango litzateke kulturalagoa, izango litzateke doinuak ezagutzea eta hori; eta beste zati bat da, ba hitzen eta esan den horren musikalitatea baliatzea, beraien bertsoa osatzeko.

- Eta trebetasun sozial eta pertsonalen inguruan, zer nolako ekarpena egiten zaie?

Nik uste dut hor bi arlo daudela. Bata da, ikasturtean zehar egiten duten lanketa, eta bata besteari abestea, eta bata besteari erantzutea, eta hor ba bueno, entzun-erantzun jarrera hori. Besteei entzun egin behar zaie, ze azkenean zuk harenetik aterako duzu zure erantzuna; beraz, elkarrizketarako jarrera hori lantzen da. Lantzen da... beraiek nahi dutenari buruz hitz egiterako garaian, beraiek nahi duten gaia bilatzea. Hau da, aukera ematen diozu berak momentu horretan, ikasle horrek momentu horretan daukana, dena delakoa, izan daiteke bere kezka bat, izan daiteke tontakerietako gogoak... dena delako baina beretik ateratzeko, ez hainbeste zuk markatzea bide bat.

Eta gero, trebetasun pertsonalari dagokionez, zati handi bat jendeaurrekoa da nire ustez. Jendeaurrekoa da, lehen esaten genuenagatik, ezta? Bada adin tarte bat non nire ustez klabea den jendeaurreko estrategia batzuk ematea; eta hor lantzen dudu, eta nik nire kasuan behintzat, saio bat osorik hartzen dut ia jendeaurreko trebetasunak, eta estrategiak, eta trukoak, etab. lantzeko, gerora balia dezaten bertsolaritzan, zein gelako aurkezpenetan, zein edozein ekintzetan. Nik beti esatem diet, bertso bat abestea edo tesi doktoral bat aurkeztea gauza bera da, oinarrian gauza bera da eta berdin egiten da.

Orduan, zuk nirekin ikasten duzun trebetasun horiek, edo lantzen dituzun trebetasun horiek, bizita osorako izango dituzu. Guk bertsoekin landuko dugu, oso oinarrizko testu simple sinpleekin, baina estrategiak berdinak dira, orduan horretan ere asko inziditzen dugu.

- Eta, bueno, zuk esango zenuke ikasle guztiengan ematen eta betetzen direla ekarpen hauek?

Bai, esango nuke baietz; bueno, beti egongo da salbuespenik, baina esango nuke orokorrean baietz. Geratzen dena da, ez dela denengan maila berean betetzen logikoa den bezala, bakoitzak bere interesak dituelako eta bere abiapuntuak ere bai. Eta gero gertatzen da guk ez ditugula ikusten; esan nahi dut, adibidez, jendeaurrekotasunaren kontuan nik beraiekin lantzen dudana ikusi dezaket jaialdi edo emanalditxo horretan, baina horren benetako inzidentzia hurrengo urteetan ikusiko da. Eta batzuetan, goiko mailako irakasleek esaten dizute, “ba aurkezpenak eta abar ondo egiten dituzte, ohituta daude...” , edo batzuk bai eta besteak ez, hori ere izaten da.

Baina esango nuke, ekarpen horietako batzuek benetako zenbat pisu duten gerora ikusten dela. Azkenean hezkuntzan, eta batez ere lehen mailan, hezkuntza da ereiten, zuk egiten duzu ondoren fruitua eman dezan. Baina uste dut baietz. Eta kurioa da, niri gertatzen zait kalean joatea eta nire ikasle ohiek ohitu egitea boulevardean “Aitor, lotsa ez da existitzen!” eta esaten dut (bere buruari) “bueno, horrekin geratu dira behintzat, ez?” eta holako gauzak. Honek esan nahi du, ba bueno, hori esaten dizunak hori izan duela konturan momenturen batean, gogoratzen da zuk esan zeniona horretaz, balio izan dio zerbaitetarako. Orduan, hori ikusten duzu, bueno, egiten duzun horrek fruituren bat ematen duela.

Noski, gero ez duzu neurtu, ezin duzu kuantifikatu eta gainera ba bat horrekin gertatu bada, ba bestea geratuko da bertsolari baten bertsoarekin, eta bestea... Baina esango nuke baietz, orokorrean hartuta, denengan betetzen dela. Gero batzuegan gauza batzuk, besteengan beste batzuk, baina orokorrean baietz.

- Eta horretarako zein material erabiltzen duzue?

Ba begira, ni aurten ari naiz ia libururik gabe; orain arte liburu bat erabiltzen genuen eta aurten hasi naiz ni beste batzuekin libururik ez erabiltzen. Orduan, prestatzen ditugu ariketa batzuk arbela digitalean jartzeko, beraiek sortu dezaten, eta beste denak ahozkoak, baina arbelean jartzen ditugunak ahozko ariketak egiteko dira: puntuak jarri, errimatzen duten hitzak, jolasen bitartez, ahozko ariketen bitartez... ia erabat ahoz ari naiz.

Gero egia da, ba bertso zaharrak eta doinuak eta abar jartzeko bai, jartzen ditut pantailan eta abesten ditugu... baina bestela, gehien bat ahozko dinamiken bitartez edo pantailan jarrita handik abiatutako ahozko dinamiken plataformak erabiliz.

Eta batez ere hori, norberak sortutako ariketak gehi bueno, elkarteko lantaldeak ere sortzen dizkigutenak, egunean jartzen dituzten ariketak guk ere erabili ditzagun. Eta gero noski, gure web-gunean dauden bertso sortak, doinu, eta hori denak ere baliatzen ditugu.

Baina geroz ere sinpleago, material aldetik orain irekiagoa da. Bat-batekoan gehiago oinarritzen. Gero gainera, irakasle bakoitzak askatasun handiagoa du bere taldeen arabera bere programazioak egiteko. Azken finean, liburu bat eramaten duzunean, nahiz eta aukera eduki liburuan atzera eta aurrera ibiltzeko, jada bide bat markatuta dago. Eta kasu hontan (gaur egun) irekiagoa da. Orduan, nik nire talde guztiekin ez ditut lan berdinak egiten, noski. Alde horretatik askatasun gehiago daukat programatzeko garaian, ariketak sortzeko garaian edo erabiltzeko garaian ere.

- Azkenik, jada bukatzeko eta itxiera emateko. Esango zenuke era arrakastatsu batean betetzen dela “gu ere bertsoetan” proiektua?

Bai, nik esango nuke baietz. Nik esango nuke baietz eta gainera ez da nire iritzi hutsa; esan nahi dut, eskolek urtero egiten dute balorazio bat, balorazio idatzizkoa. Batetik egiten da, otsaila-martxoan bilera bat, eta ikasturtearen martxaren balorazio bat egiten da, eta gero, ikasturte amaieran eskolek balorazio txosten bat aurkezten dute. Eta adibidez, oraintxe aurkeztu dituzte hurrengo urteko eskaerak eta eskola guztiek jarraitzen dute, batzuk talde kopurua handitu ere bai, beraz esan daiteke beraien ikuspegitik BAI.

Eta gure ikuspegitik nik esango nuke baietz, betetzen dela, beti geratuko zaizu penaren bat, iritsi ez zinen bat, baina orokorrean esango nuke ikasleek... bai; bai, bai... jasotzen dutela eman nahi geniekena eta ematen digutela guk espero genuena baina gehiago, beraz, bai, betetzen dela esango nuke.

2. UNITATE DIDAKTIKOA

2. jarduerako 2. ariketaren adibide osoa:

Ikusi nuenean

zure ile latza,

iruditu zitzaidan

sorginen _____ **erratza/behatza/ikatza**

Ikusi nuenean

nik zure sudurra,

iruditu zitzaidan

lukainka _____ **laburra/muturra/gezurra.**

Ikusi nuenean

zure belarria,

iruditu zitzaidan

azaren _____ **orria/zerria/herria**

Ikusi nuenean

nik zure kokotza,

iruditu zitzaidan

gaztaina _____ **ahotsa/izotza/morkotsa.**

Ikusi nuenean

nik zure besoa,

iruditu zitzaidan

Irati _____ pausoa/**basoa**/atsoa.

Ikusi nuenean

nik zure begia,

iruditu zitzaidan

gerezi _____ sandia/erdia/**handia**.